

2018-04-13 OSTIRALA / 636. ZENBAKIA / 2. AROA
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKIKOM

Txapela Sakanara

Ezkurdiak eta Zabaletak Binakako finala irabazi zuten nagusitasun handiz / 18-19



Atertzeko zain

Altsasuko auziaren epaiketa astelehenean hasiko da / 2-7



Euskararen erabilera sustatzeko helburua duen Euskaraldian dagoeneko 7 herrik izena eman dute / 5

Lakuntzako Biltoki gazte elkarteak 50. urteurren arrakastatsua ospatu zuen asteburuan / 7

Berrikuntzak Lanbide Heziketan: hezkuntza duala mendekotasuna dutenak laguntzeko ziklo berria / 5

Gure herri kirolariak Sakanako Herri Kirol Egunean bilduko dira igandean, 11:30ean, Lakuntzan / 21

Oroimena kantuz, memoria kontzertu akustiko bat baino gehiago igandean Lakuntzan / 23

Tabernako liskarraz Audientzia Nazionalean

Urte eta erdi ondoren, Altsasuko auzia izeneko kasua astelehenean epaitzen hasiko dira. Aurretik, biharko manifestaziora deitu dute. Baina auziak berak eta inguruko guztiak arrastoa utzi dute dagoeneko

ALTSASU

Urte askoan ez da ahaztuko 2016ko lastailaren 15eko goizaldean, herriko ferietan, Altsasuko taberna batean eta haren kanpoko aldean gertatutako liskarra. Ondorioz, zerbitzuz kanpo zegoen Guardia Civileko teniente batek orkatilan haustura izan zuen. Harekin zegoen sarjentuak eta bien bikotekideak zauri arinak izan zituzten.

Estatuko Segurtasun idazkari Jose Antonio Nietok jakinarazi zuenez, 2016an segurtasun indarren kontrako 9.571 eraso kasu izan ziren. Halakoak atentatu delitu gisa epaitu ohi dira eta 6 hilabete eta 2 urte arteko zigorrak ditu. Isunen ordainketa eta asteburuko atzipenaldiak ere izaten dute ondorio. Baina Altsasuko gazteak terrorismo delituagatik auzipetuko dituzte. Covitek egin zuen salaketa eta Espainiako Auzitegi Nazionalak tesi horrekin bat egin zuen, eta epaiketa Iruñetik Madrilera eramane zuen.

Herri akusazioa den Coviterendako egun hartako liskarra planifikatutako zerbait da. Horretarako, Espainiako segurtasun indarrak Euskal Herritik joateko eskaera egiten duen Alde Hemendik dinamika eta ETA lotzen dira. Eta bi horiek Altsasun bertako dinamika batekin, Ospa mugimendurekin lotzen dute. Hortik ferietako egun bateko goizaldean gertatutakoa terrorismotzat jotzea. Hortik auzipetutako zortzi gazterendako guztira 375 urteko kartzela zigorra eskaera egitea. Covitek, gainera, zilegi ez den elkarteko



Ostiralero moduan pasa den astean ere kontzentrazioa egin zen udaletxe parean.

kide izatea leporatzen die auzipetuei eta, horregatik, 4 eta 18 hilabete arteko zigor gehigarria eskatu du.

Neurrigabea

Hedapen handia duten zenbait hedabidek hasieratik Altsasuko auziari, eta herriari berari, eman zioten tratamendua eta hedapena altsasuar asko nazkatu zituen (ezkutuko kamerak ere erabili zituzten). Neurrigabea irizten zioten euren herriaz esaten zirenei; ezjakintasunetik eginak, edo aurreiritziekin eginak. Liskarra salatzen zuten altsasuar askok ere iraindua izanaren sentipena izan zuten. Herritik kanpo, geografia luze zabalean gauza bera pentsatzen zuten beste mordo batek ere. Gazteen atxiloketak eta urrun espetxeratzeak are gehiago maratu zituen.

Nafarroako Guardia Civilaren koronel-buru Javier Hernandezek ere hedabide batzuk Altsasu Guardia Civilarendako herri zail gisa agertzeko tema aipatu zuen eta hala ez zela nabarmendu zuen.

Auziaren inguruan dagoen neurrigabetasun sentipena are gehiago handitu zuen fiskaltzaren 375 urteko zigor eskaerak. Herritar arrunt askoren buruan sartzen ez zen neurrigabekeria. Baina harridura berarekin, edo handiagoarekin, begiratzen zioten epaitegi arloan lan egiten duten profesionalak, hainbat erakunde publikok edota Amnesty Internationalek. Herritarrek sentitzen zutena berretsi zuten, terrorismo delituaren neurri gabeko erabileraren aurrean gaudela salatu zuten eta terrorismoaren kontrako legedi zehaztu gabearen adibidea dela.

Defentsaren lekukoak eta frogak atzera botatzeak eta auziko epaileetako bat Guardia Civil baten bikotea dela jakiteak auzian izaten ari den bidegabeke-ria sentipena handitu du askorengan. Haien artean ugariak dira guardia civilak eta euren bikoteak zaurituak izana gaizki ikusten dutenak, baina esan bezala, zigor eskaerekin batere ados ez daudenak. Eta beste auzi eta epai ezagunekin alderatzen ditu jendeak zigor eskaerak eta eskandalagarria zaie, ez zaio buruan sartzen.

Terrorismo delitua

Zigor Kodeko terrorismo delituei buruzko 573.1 artikuluan oinarrituta auzipetu eta epaituko dituzte hamar altsasuarak. Artikulu horrek terrorismo delitutzat jotzen ditu "bizitzaren edo osotasun fisikoaren kontrako edozein delitu larri" eta haien artean daude "botere publikoak zerbait egitera edo ez egitera behartzea eta populazioan edo haren zati batean terrore egoe-rra sortzea".

Espainiako Auzitegi Gorenak epaiketa Auzitegi Nazionalean egin behar zela ebatzi zuen, argudiatuz, "delituaren larritasuna ezin da momentuz baztertu, agenteetako batek jasandako lesioak tarteko". Epaileek gaineratzen zuten, Zigor Kodeko 573.1 artikuluan jasotako helburuen "zantzuak ikus daitezke hasiera batean, Estatuko Segurtasun Gorpu eta Indarretako kideen eta familien artean terrore eta segurtasun eza sortu eta aipatu lurraldeak (Hego Euskal Herria) uzteko jokabideen markoan izan baitziren gertaerak. Ezin da ere baztertu gertaerak emozio egoera hori sortzea helburu zuela".

Espainiako Auzitegi Goreneko epaileek, polizia txostenak kontuan hartuta, azaldu zuten "talde batek egindako erasoan parte hartu zutenetako baten bat segurtasun indarretako kideak Nafarroatik eta Euskal Autonomia Erkidegotik protesta, presio eta zirikatzearen bidez kanpo-

ratzeko erakundeekin erlazionatzeko zantzuak" daudela.

Horretan oinarrituta egin ditu eskaerak fiskalak. Altsasuko gertakariak Guardia Civilak eta Espainiako Polizia Euskal Herritik joateko 'Alde Hemendik' kanpainaren baitan kokatzen ditu fiskaltzak. Haren esanetan kanpaina horren helburua guardia civilengan eta polizienengan "beldurra" eragitea eta gizartean haienganako "ezinikusia" sorraraztea da.

Baina Nafarroako Lurralde Auzitegian ez zuten halako terrorismo deliturik ikusi eta epaiketa Iruñean egitea eskatu zuen. Delitu larririk ez zuten ikusi liskarrean eta horrek 5 urtetik beherako zigor eskaerak zekartzan. Horregatik, izan zuen azken hitza Gorenak.

Gero eta jende gehiagok ikusten du Altsasuko auzia beste "joko konplexuago" baten pieza bat besterik ez dela: Guardia Civilaren presentzia hemen zalantzan jartzen duen diskurtso bat geldiaraztea, ETA ez badago ere haren garaiko estatu egiturak mantentzen dira".

Epaiketa

Espainiako Auzitegi Nazionalean astelehenean hasiko da epaiketa eta bi astez luzatuko da, hilaren 27ra arte. Aurreneko egunean akusatuek euren lekukotza emanen dute. Bigarren egunean salaketa jarri dutenen txanda izanen da. Eta hurrengo hiru egunetan lekukoaren txanda iritsiko da. Epaiketaren bigarren astean Guardia Civilaren perituak arituko dira lekukotza ematen. Horren ondoren epaileek euren epaia publiko noiz egingen duten ez dago jakiterik. Itxaronaldia luzea eta urduria izanen da.

LISKARRA SALATZEN DUTEN ALTSASUAR ASKOK ERE IRAINDUA IZATEAREN SENTIPENA IZAN DUTE HASIERATIK



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com



Etxe pasiboetarako egokia

5 9000

Beirak lehorrean jarrita

Isolamendu nukleo indartsua

IKD

Aparteko azala koloreztatua

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

ALTSASUKO AUZIKO EPAIGELAKO OSAKETA


Concepcion Espejel


Manuela Fernandez


Jesus Eduardo Gutierrez

Epaileak

Espainiako Auzitegi Nazionala

2018ko apirilaren 16tik 27ra






Abokatuak

Fiskaltza

Herri akusazioa

Akusazio partikularra

-  **Jaione Carrera**
-  **Jose Luis Galan**
-  **Eva Gimbernat**
-  **Amaia Izko**
-  **Jaime Montero**
-  **Manuel Olle Sese**

-  **Jose Luis Peral**
-  **Covite, Ruben Mugica**
-  **Asociación Unificada de Guardias Civiles**
-  **2 guardia civilenak, Estatuko Abokatua**
-  **2 emakumezkoena, Jaime Zusa**

Auzipetuak

Oihan Lau "terrorismo delitu" eta "mehatxu terrorista" egitea: 62 urte eta erdiko espetxe zigorra.	Adur Lau "terrorismo delitu": 50 urteko espetxe zigorra.	Iñaki Lau "terrorismo delitu": 50 urteko espetxe zigorra.	Aratz Lau "terrorismo delitu": 50 urteko espetxe zigorra.	Jon Ander Lau "terrorismo delitu": 50 urteko espetxe zigorra.	Jokin Lau "terrorismo delitu": 50 urteko espetxe zigorra.	Julen Lau "terrorismo delitu": 50 urteko espetxe zigorra.	Ainara Lau "terrorismo delitu": 50 urteko espetxe zigorra.
--------------------------------------------------------------------------------------------------------------	--------------------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------------	----------------------------------------------------------------------

Hainbat nafar ezagunek bat egin dute manifestazio deialdiarekin

Nafarroako akademia, kultura, kirola, hedabide eta gizarte-arloko pertsonak babesa adierazi diote

ALTSASU
 Altsasuko Gurasoak eta Altsasukoak Aske herri asanbladak deituta, bihar Iruñean egingen den manifestazioari bere babesa adierazi diote eta bat egiten dute hainbat nafar ezagunek eta *Justizia, proportzionaltasuna eta Ez da terrorismoa* aldarriekin bat egin dute.

Honakoak dira atxikimendua azaldu duten nafar ezagun horiek: Pedro Miguel Etxenike (fisikaria, Europako Fisika Elkarteko oho-rezko kidea), Montxo Armendariz (zinema-zuzendaria), Helena

Taberna (zinema-zuzendaria), Carlos Garaikoetxea (lehendakari ohia), Daniel Innerarity (filosofoa), Mirentxu Purroy (kazetaria), Juan Martinez de Irujo (pilotaria), Fernando Rey (itzultzailea), Mariano Ferrer (kazetaria), Begoña Zabala (Emakume Internazionalista), Miguel Sanchez-Ostiz (idazlea), Joseba Ezkurdia (pilotaria), Mikel Urmeneta (ilustratzailea), Txema Aranaz (editorea), Xabier Morras (margolaria), Dora Salazar (eskultorea), Jose Mari Esparza (editorea), Roldan Jimeno (his-



torialaria), Lourdes Errazti (Aranzadi zientzia elkarteko kidea), Juan Kruz Lakasta (kazetaria), Xabi Otero (argazkilaria), Enrike Zelaia (akordeoilaria), Castillo Suarez (idazlea), Sagrario Aleman (irakaslea), Asier Aranguren (kazetaria), Fermin Balentzia (Musikaria), Satur Leoz (kazetaria) eta Txabi Idoate (margolaria).

Bere babesa adierazi duten nafar ezagunetako batzuk. UTZITAKOAK

ALTSASU

Segituan irakurriko duzun elkarrizketa hau asteazken arratsaldean egin zen. Momentu berean, beste bi ama Katalunia-ko TV3eko *Preguntas Frecuentes* saiorako elkarrizketa grabatzen ari ziren. Euskadi Irratiko Faktoria saioa eta Euskalerrria Irratiko magazina gaur Altsasutik eginen dituzte, auzia gai hartuta. Eta telefonoz beste hainbat elkarrizketa ematen ari dira, gaiak lortu duen oihartzun handiaren seinale dena.

Hemen da, iritsi da epaiketa garaia. Zer sentitzen da?

Nekane. Momentuz kristoren beldurra. Segurtasun falta. Eta itxaropen pixka bat ere.

Antton. Batez ere beldurra. Baina itxaropenerako beti dugu leku bat.

Gotzon. Urte eta erdi eta gero iritsi da. Oso bide luzea izan da. Bi gauza sentitzen ditut batera. Alde batetik, beldurra. Orain arte Justiziaren zati txikiren bat ere ez dugu ezta dastatu. Itxaropena baita ere, inguruan jendea eta gauza guztiak ditugulako. Epaiketa iristeko gogo daukagu, baina beldurrez eta urduri gaude. Baina gauzak egiten. Aurrera!

Bi aste epaiketa. Bizitza askoren etorkizuna hor dago jokoan, ezta?

N. Bai. Ez dakigu zer gertatuko den. Badakigu atzean ere gizarte eta erakunde babes izugarria dugula. Pentsatzen dut horrekin ere konturatu beharko direla bakarrik daudela.

A. Orain fase bat itxi eta berri bat zabalduko da. Fase hau ixteko elementu asko daude eta guztietan onena elkartasuna izan da. Indar horrekin Madriler joanen gara. Hor daude gure semeak itxaroten. Eta etorkizuna, kolokan. Jokoan dagoena etorkizuna da. Perspektiba hori ezin dugu galdu. Horregatik aurrera joanen gara, indartsu.

Epaiaketa bertatik bertara, gelan bertan segituko duzue, ezta?

A. Espero dugu. Halakoetan ez gara adituak, baina baietz pentsatzen dugu. Gure gazteekin epaiaketa bi asteak pasako ditugu, gure, herriaren eta herri guztien babes eta elkartasuna ematen. Areto barruan familia gisa egotea pentsatzen dugu. Ez dakigu nola funtzionatuko duen. Aretoak toki mugatua du eta ez dakigu. Ez dugu uste areto barruan egoteko eskubide hori ere kenduko digutenik.



Nekane, Antton eta Gotzon, Altsasuko auzipetuen gurasoak.

"Orain arte Justiziaren zati txiki bat ere ez dugu dastatu"

Altsasuko Gurasoak taldeko kideak dira Nekane Ortigosa, Antton Ramirez de Alda eta Gotzon Urritzola. Biharko Iruñeko manifestazioaren eta etzidamu hasiko den epaiaketa aurretik haiekin elkartu gara, haien beldur eta esperantzen berri izateko

Behin aretoaren barruan egonda gauza batzuk entzutea ez da xamurra izanen, ezta?

A. Pentsatzen dugu oso gogorra izanen dela. Hori jasanen dugu. Azken finean, pasatzea eta entzutea da. Sufritzea ere. Baina

"EPAIKETA OSO GOGORRA IZANEN DELA PENTSATZEN DUGU. ORAIN ERE SUFRITZEN ARI GARA"

orain arte ere sufritzen ari gara. Pixka bat gehiago da.

Horretarako ere prestatu behar da, ez?

G. Bai. Prestatu dugu borroka hau eta prestatu gara gu geu. Bakoitza familia bagara, guraso guztiak familia handi bat izatea. Herria beste familia handi bat da. Azken finean, batasun oso handia lortu dugu. Oso polita da. Epaiaketa aretoan herria egonen da, nahiz eta oso pertsona gutxi egon, herri osoa egonen da.

2016ko lastailaren 15 hartatik urte eta erdi pasa da. Bitarte horretan zuek ere lege kontuetan jantzi behar izan duzue.

G. Ez dakit ikasi dugun, baina gutxienez esperientzia desberdina izan da. Baina lehen aipa-

"MANIFESTAZIOA ZORAGARRIA IZATEA ESPERO DUT. OSO HANDIA. ETA PENTSARAZIKO DIENA"

tutakoa, ez gaude eta ez gara bakarrik egon. Gure inguruan epaiaketa, instrukzioari eta bestelakoei buruz ikasi dugu jendeak esan digulako: abokatuak, erakundeak, epaitegi arloan aritzen direnek... babes eman digute. Haien iritziak guretako garrantzitsuak izan dira. Dene-tatik ikasi dugu. Eta ikasitakoa izan da Altsasukoa aske herri asanblada, gazteak, jendeak, hedabideak eta bestek eman digutena.

Iruñeko manifestaziora hiru eskaera daramatzazue. Aurrenekoa Justizia eskaera da.

N. Hori da eskatu behar dena. Hori da eskatzen ari garena, behar dugulako. Orain arte Justizia ez da inon ikusten. Orain arte probak kendu dizkigute. Lekukoak kendu dizkigute. 2016an 9.571 pertsonak izan dute halako arazoa segurtasun indarrerekin. Altsasukoa da, bakar-bakarrik, terrorismoa. Hor ez dago Justiziarik. Ez dute jakin nahi zer gertatu zen! Terrorismoagatik epaituko dituzte, baina taberna batean izandako bronka bat da. Hori, lehenik ikertu egin behar da. Jakin behar da zer gertatu zen. Hori ez dakigu eta beraiek ez dute jakin nahi. Eta hortik aurrera ikusi zer egin behar den.

Iruñera eramaten duzuen eskaera da: hau ez da terrorismoa?

G. Gaur egun terrorismo hitza banalizatu, ezereztu egin da eta hori esaten da. Beste helburuekin erabiltzen da. Hau terrorismoa bada, ISIS eta halakoak aipatzen dituztenean... zer izanen da? Ez du logikarik. Terrorismo hitza beste gauza batzuk lortzeko erabili nahi dute. Ez dago eskubiderik! Terrorismoa ezereztea da, bai.

Iruñean eginen den hirugarren eskaera Altsasukoak aske da.

A. Lehenengo momentutik pentsatzen dugu hori. Zergatik? Justizia izan ez dugulako. Zergatik? Terrorismoa ez delako. Hori neurrigabetasuna da. Badirudi pasatako denbora horretan segitu nahi dutela, ez dutela handik atera nahi. Gurasoak lehenik, eta herria gurekin, eta herri pila batek eskatzen duguna da: Altsasukoak aske! Zergatik? Justizia nahi dugulako. Ez da terrorismoa. Ez da posible horrelako bide, amesgaizto luzea izatea. Lehen aipatutako itxaropena da Altsasuko gazteak aske geldituko direla.

Iruñeko biharko manifestazioa nolakoa izatea nahi zenuke?

N. Nik espero dut zoragarria izatea. Oso handia. Asko sufriarazi gaituzte, baina inolaz ere pentsatzen ez zuten gauza bat lortu dute: jendeak gertaera nolakoa den ikusi du eta gure alde dago. Horrek beraiei ere pentsarazi egin behar diela uste dut.

A. Nahi eta espero dut historikoa izatea. Lortu duguna oso handia da. Lortu dugu jendeak, orokorrean, gure larruan jartzea. Jendeak beraien familia, beraien semeak, beraien herria ikusten ditu. Altsasun gertatu dela ikusten dute, baina baita euren herriari gauza bera ere. Lortu duguna oso handia da. Ikusi dugu jendea autobusak mugitzen ari dela, iritzi emateak, adierazpenak... Espero dugu historikoa izatea, benetan.

G. Manifestazio izugarria izanen da. Manifestazio anitza izanen da. Leku askotatik etorriko da jendea. Esan digute autobus pila aterako direla makina bat lekutatik. Pentsatzen dugu manifestazioarekin gizartearendako Altsasu, zentzu onean, eredu bihurtuko dela; aurrerapauso bat emanen dugula halako gauzak, halako injustiziak ez gertatzeko; ez hemen ez inon. Altsasun gertatutakoa ez dugu inon pasatzea nahi. Askotan esan dugu: orain Altsasu, bihar zu! Horren aurrean zerbait egin behar dugu. Altsasuk jaso duen elkartasun guztiarekin aurrerapauso bat egin duela eta manifestazioa Justiziaren eta askatasunaren aldeko aurrerapauso bat izanen da.

Entzundakoagatik, Madrilera pilak kargatuta joanen zarete, ezta?

G. Bai. Herri bat atzean dugula. Lortuko dugu. Pilak kargatuta, beldurrez eta itzaropenarekin.

Epaituak izanen direnak, zuen seme-alabak, zer moduz daude?

N. Urduri. Beldurtuta. Esperantza ere badute. Adin horrekin hau pasatu behar da. Kudeatzea oso zaila da. Hor segitzen dute. Kristoren mina egin diete, baina, hala ere, heldu egin dira. Denak dauka bere alde txarra, eta honek oso txarra du, eta bere alde onak. Hori ere aprobetxatu behar da.

A. Zoritxarrez, horrela da. Guk gure taldean aipatzen dugu ahalduntze bat lortu dugula. Gazteek heldutasuna lortu dute. Zoritxa-

rez horrela suertatu da. Ikasi dute bizitza nolakoa den. Konturatu dira baita non bizi garen, aurrean nor dugun... Asko ikasi dute.

G. Heldutasun bat iritsi zaie, ahalduntzea izan dute. Eta zer esan urte eta erdi kartzelan daudenak. Haiiek ere erakutsi dute, bai euren familiei, bai guztioi, tinko, irmo eta itxaropenarekin daudela. Bide batez, aprobetxatuz, gazte bakoitzari besarkada bat gurasoon partetik; bereziki luzea kartzeletara iristeko.

Prozesu honetan garbi dago urte eta erdirako seme-alabak kendu dizkizuetela. Zer gehiago kendu dizute?

N. Ilusioa. Bai, zeren, ni behintzat, oso triste nago. Beste bizitza kendu digute. Zeren, azkenean, gai honetan buru belarri sartzen zara. Nik batzuetan esaten dut: Aiba! Hemendik kanpo zerbait gehiago ere badago! Bizitza ere kendu digute.

A. Kendu digute denbora. Kendu digute osasuna. Anekdotak gisa, niri kendu didate jubilatzerakoan pentsioarekin ongi bizitzeko aukera. Gauza asko kendu dizkigute. Eman digute ere, lehen komentatu duguna, gauza asko. **G.** Alaitasuna kendu digute. Bizitzeko gogo sutsu hori. Indar guztiak honetarako eman behar izan ditugu. Indarrez eman ditugu, gustura ere. Hemen gaude. Herriaren laguntza izan dugu. Kendu nahi izan diguten guztia ez digute kendu. Eta ez digute kenduko!

Eta urte eta erdi honek zer eman dizue?

G. (uff) Ba gure herriaren ikuspegi onena. Gure herria esaten dugu gertuena delako. Hemen jendearekin egon gara; hobe esanda, jendea gurekin egon da, gertu-gertu. Besarkada batean. Beste herrietatik ere elkartasuna ikusi dugu. Laguntza ederra eman digute. Denek! Zer kendu digute esaten digute, baina gehiago jaso dugu.

A. Eman digute kendu dizkigutenak baino gauza gehiago agian. Eta inportanteagoak. Eman digute maitasun izugarria, laguntza... Lortu duguna betiko izanen da eta ez dugu inoiz ahaztuko. Zeren oso gauza handia eman digute. Hor geratuko da, betiko. **N.** Jendea zurekin ikusten duzu. Beti hor. Beti atzean. Zerbait eskatzen baduzu, beti hor dago jendea. Nik uste dut hori garrantzitsuen dela.

Altsasuko auziaren kronologia

- **2016-10-15** Goizaldean Guardia Civilen, haien bikoteen eta gazteen arteko liskarra izan zen.
- **2016-10-17** Atxilotutako bi gazteek Mari Paz Benito epailearen aurrean deklaratu zuten.
- **2016-10-18** Covitek Espainiako Auzitegi Nazionalan salaketa jarri zuen.
- **2016-10-22** Muntai eta hedabide batzuen trataera salatzeako manifestazioa. Covitekoak hasieran.
- **2016-10-26** Bost gazte Iruñeko epailearen aurrean deklaratzera joan ziren. Ez zegoen.
- **2016-10-27** Guardia Civilaren txostenak ez du terrorismo zantzurik ikusten.
- **2016-10-28** Beste bi gazte Iruñean deklaratzera saiatzen dira. Asmoa adieraziz agiria sinatu zuten.
- **2016-11-09** Iruñeko 3. Instrukzio Epaitegiaren inhibizioa, Espainiako Auzitegi Nazionalaren esku. Espainiako Auzitegi Nazionalako Carmen Lamela epaileak beretako eskatu zuen kasua.
- **2016-11-14** 10 gazte altsasuar atxilotu zituzten Espainiako Auzitegi Nazionalaren agindurik gabe. Atxiloteten kontrako manifestazio jendetsua.
- **2016-11-15** Nafarroako Gobernuak atxilotetak ez zirela beharrezkoak adierazi zuten.
- **2016-11-16** Madrilen deklaratu ondoren beste gazte bat kartzelara. Zazpi guztira. FIES erregimena ezarri zieten.
- **2016-11-21** Nafarroako Parlamentuak atxilotetak errefusatu zituen.
- **2016-11-26** 20.000 bat pertsona elkartu ziren manifestazioan.
- **2016-12-20** Lau gazte aske utzi zituzten.
- **2016-11-21** Askatasuna eskatzeko ostiraleroko kontzentrazioak hasi zituzten.
- **2017-01-07** Atxiloteten ondorengo herri batzarrean parte hartzeagatik 10 isun iritsi ziren.
- **2017-01-27** Manifestuaren Sakanako aurkezpena.



- **2017-02-13** Bi adin txikikok Madrilen deklaratu zuten.
- **2017-02-16** Nafarroako Parlamentuak gorteei Zigor Kodeko 573. artikulua aldatzeko eskatu zion.
- **2017-02-22** Altsasuko Udalak hiru gazteen askatasuna eskatu zuen.
- **2017-03-07** Gazte baten auzipetzea baliogabetua. Auzian 8 daude.
- **2017-03-22** 90 diputatuk eta senatari inguruk adierazpen bateratua aurkeztu zuten.
- **2017-03-23** altsasugurasoak.com web orrian manifestua sinatu daiteke.
- **2017-03-24** Nafarroako Lurralde Auzitegiak helegitea onartu eta Iruñean epaitzea eskatzen du.
- **2017-06-01** Gorenak auzia Auzitegi Nazionalan epaitu behar zela erabaki zuen. Gurasoek eta plataformak batzar jendetsuan euren iritzia eman zuten. Manifestaziorako baimena ez zuten eman. Antolatzaileek deialdia bertan behera utzi arren jendetzak parte hartu zuen. Isuna azaroan iritsi zitzaion guraso bati.
- **2017-06-06** Adur bakartze modulura eraman zuten, martxakoak agurtzeagatik. Salaketa kontzentrazioak egin ziren herrian barna.
- **2017-06-09** Gazteak espetxe desberdinetan dispersatu zituzten: Oihan Navalcarnerora (433 km-ra), Adur Aranjuezera (460 km-ra) eta Jokin Extremerara (13an) (465 km-ra).
- **2017-07-04** Fiskaltzak egin zezakeen zigor eskaerarik handiena egin zuen: 375 urte guztiendako.
- **2017-09-04** Nafarroako Parlamentuko Bozeramaileen Batzordeak fiskaltzaren eskaerarekin "erabateko desadostasuna" azaldu zuen.
- **2017-09-19** Presoei zazpigarren aldiz askatasuna ukatu zieten.
- **2017-09-29** Europako Batzordeko lehen lehendakariorde Frans Timmermansek esan zuen gertutik segituko dutela Altsasuko auzia. Zigorren proportzionaltasuna eta oinarritzko eskubideak betetzen direla aztertuko du.
- **2017-11-14** Abokatuek "defentsarako froga gehienak ukatuta, defentsarako eta prozesu zuzena izateko eskubidea urratu" dela salatu zuten.
- **2017-11-21** Epaietaren data jakinarazi zen.
- **2017-11-28** Nafarroako Gobernuak Parlamentuaren adierazpena bere egin zuen.
- **2018-02-22** Altsasuko auzia Amnesty Internationalen urteko txostenean jaso zen. Fair Trialsendako Altsasuko auziko zigor eskaria "asaldagarria" da.
- **2018-02-24** Altsasuko 49 taldek eta elkarte antolatutako Nafarroako Birako sei etapetatik lehena egin zen.
- **2018-03-02** Auzipetuen eskaera atzera bota eta Espainiako Auzitegi Nazionalak berretsi zuen epaietan Guardia Civilarekin lotura duen epaile bat izanen dela.
- **2018-04-09** Nafarroako Parlamentuak 14ko manifestazioan parte hartzera deitu zuen.

Kronologia osoa:
altsasukoauzia.guaixe.eus

Epaiketaren aurretik Iruñean da hitzordua

Larunbatean, 17:30ean, Iruñeko Golem zinemetatik abiatuko da Altsasuko Gurasoek eta Altsasukoak aske herri plataformak deitutako manifestazioa. Gaztelu plazara iritsiko dira manifestariak, baina auzipetuak eta senideak Madrileraino eramanen ditu

ALTSASU

Iruñeko biharko manifestazioa behar bezala garatzeko 200 boluntario ariko dira lanean. Haien laguntzaz handia espero den manifestazioak Iruñeko kaleetan barna hiru aldarrri eramanen dituzte: Justizia eskaera, gertatutakoa ez dela terrorismoa eta Altsasuko gazteen askatasuna. Jendetsua espero da mobilizazioa, hainbat tokitatik autobusak antolatutak baitaude.

Harekin bat egin du Nafarroako Gobernuari eusten dion laukoak. Haien ekimenez onartu zuen astelehenean Nafarroako Parlamentuko Bozeramaileen Batzarrak manifestazioari "babeza" azaltzen zion eta nafarrak hartan parte hartzera gonbidatzen zuen erakunde-adierazpena. Nafarroako Gobernuak ere bat egin du biharko manifestazioarekin. Maria Solana bozeramailelea izanen da foru gobernuaren ordezkari duena. Solanak herenegun adierazi zuenez, "neurritasun printzipioarekiko errespetua" aldarrikatu dute. Nafarroako 21 udalek ere bat egin dute manifestazioarekin.

Kritikak

Nafarroako Gobernuak biharko mobilizazioan parte hartzea ez du gogoko UPNk: "zentsugabe-



Biharko manifestazioko kartelaren aurkezpena. ARTXIBOIA

keria da gobernuaren Altsasuko erasotzaileen aldeko manifestazioan parte hartzea". Erregionalisten iritziz, "Botere Judiziala kikiltzea baino gobernu jardun okerragorik ez dago. Badirudi batzuk oraindik ez dutela sinisten botere banaketa demokrazia baten oinarritzeko araua dela". UPNk "ohiz kanpo" jo du gobernuak "biktimak defendatu beharrean, erasotzaileen alde egitea".

PSNko idazkari Maria Chivitek esan duenez, "Nafarroako Gobernuak Altsasuko gazteen aldeko manifestazioarekin bat

egitean instituzionaletik urrun dagoen jokabide politiko bat" duela. Chiviteren iritziz "laukoa erretratatu egin da. Pentsioen defentsako manifestazioen alde ez da agertu, baina bai guardia zibila eta euren bikoteak erasotu zituztenen alde. Agerian gelditu dira gobernuaren interesak".

Azkenik, Nafarroako PPko buru Ana Beltranek esan du "Justizia kritikatzeko duen eta erasotzaileak babesten dituen gobernuak bat ez du gobernatzeko gaitasunik".



ELAK, LABek, ESK-k, CGTk, STEILASek eta EHNEk Nafarroan epaitzea eskatu dute.

Zortzi sindikatuk auziari buruzko "kezka" azaldu dute

CCOO, ELA, LAB, ESK, CGT, STEILAS, HIRU eta EHNE sindikatuak dira sinatzaileak

ALTSASU

Altsasuko zortzi gazteri terrorismo delitua egotzi izanagatik epaituko dituzte heldu den astean. Hori dela eta, UGT ez beste, Nafarroako gainontzeko sindikatuek adierazpena adostu dute. Alde batetik, "errugabetasunaren presuntzioa, defentsarako eskubidearekiko urraketarik gabeko epaiketa justuaren eskubidea eta epaile naturalaren eskubidearekiko errespetua" aldarrikatu dituzte. Gainera, "terrorismo-delituaren kalifikazio penalaren deuseztatzea, presoaldi prebentiboko kautelazko neurriak kentzea eta kasuaren instrukzioa Nafarroako Auzitegiara bueltatzea" eskatu dute.

Sindikatuak gogora ekarri dute Nafarroako Lurralde Auzitegiak 2017an emandako epaia, zeinean Altsasuko gertakarietan ez zen "terrorismo-delitua leporatzeko zantzurik aurkitu eta, beraz,

gertaerak Nafarroan instruitu behar direla". Sindikatuek nabarmendu dutenez, "terrorismo delituak delitu larria gertatu izana eskatzen du, bost urte baino gehiagoko espetxe-zigorrei lotuta". Sindikatuek gogoraziti dute aipatu auzitegiak halakorik ez zuela ikusi eta Foruzaingoak eta Guardia Civilak ezta ere.

Zortzikoteak "errefusa" adierazi dute gazteei egindako 375 urteko zigor eskaeraren kontra eta hiru gaztek espetxean 16 hilabete eramateagatik. "Gertakari ezarritako kalifikazio penalaren desegokitasunak, leporatze horiek etsi ahal izateko behar diren betebeharrak juridikoak ez betetzeak, proportzionaltasun-faltak eta tipo penalen interpretazio hedakorrek pertsona guztiak babestu behar gaituzten askatasunak berme prozesalako eta segurtasun juridikoa urratzen dituzte".

9:00etatik 11:00etara Euskalerrria irratiaren Sakanari buruzko SAIO BEREZIA
11:00etatik 12:00etara Beleixe albistegia. Gaiak:

- Epaiketaren bezperan, Altsasuko Gurasoekin hizketatuko gara
- Irurtzango Kulturartekotasunaren Astearen aurkezpena
- Lakuntzako Biltoki gazte elkartearen 50. urteurrenaz sortzaile batekin eta gazte batekin



Ostiralero 9:30ean
SAIOA

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Asteleheneetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara

107.3 FM
beleixe
guaixe.eus-en ON LINE



Jende asko elkartu zen Nafarroako Birari agur esateko ekitaldian. REBEKA MENDOZA

Nafarroako Bira Sakanako etaparekin despeditu zen

Sakanako, Arabako Lautadako eta Gipuzkoako Goierriko alkateak eta ordezkariak Arbizun elkartu ziren larunbatean

Rebeka Mendoza ARBIZU

Martxa 11:30 aldera Irurtzundik eta Ziorditik Arbizurantz abiatu zen. Bertara ailegatu ondoren, 12:30etan, kiroldegia inguruan jendeak autoetatik jaitsi eta udaletxerantz jo zuen pankarta baten atzetik, Burundar txistulariak taldeak animaturik. Udaletxean Araiako txalapartariak lekukoa hartu zuten, erritmoarekin ekitaldiari hasiera ematen. Eguraldi txarra zela eta, ekimena udaletxearen barnean izan zen. Bertan, Oier Lakuntza Irigoien bertsolari eta fisikari sakanarrak gazteriaren aldeko aldarrikapena bertsotan jarri zuen: “gazteak preso mantentzea dela hemen delitu bakarra”.

Aurkezleek Lakuntzaren bertsuak eskertu eta Arbizuraino babesa emateko hurbildu ziren herrien izenak gogorarazi zituzten. Jarraian, Arbizuko alkate Karmele Marañonek hitza hartu zuen eta Altsasuko taberna batean gertatutakoa ez zela terrorismoa eta justizia egin behar dela aldarrikatu zuen. Ildo berean hitz egin zuen David Orozek, Urdaingo alkateak eta Mankomunitateko lehendakariak.

Ekimena despeditzeko, Altsasu Gurasoen izenean Gotzon Urrizolak, hunkiturik, hilabete hauetan guztietan jasotzen ari diren elkartasuna eta indarra eskertu zuen. Justizia behar dutela, ez dela terrorismoa eta gazteak aske uzteko eskatu zen.

12.000 parte-hartzaile baino gehiago

lia batzuei zuzenduriko elkartasuna, demokraziaren balore eta printzipioen eta giza-eskubideen defentsa ere izan dela pentsatzen dugu. Argi geratu da Nafarroako gizarteak bere seme-alaben eskubideak defendatzen dituela eta sakonki arduratuta dagoela gertatzen ari den bizikidetzeta eta demokraziaren nariaduragatik, botere gehiegikeriek, gain-aktuazio judizial eta mediatikoez eta gure lurraldekoak ez diren eragileen injerentziek sortuak”.

Auziaren zenbait datu

515

Auzipetutako hiru gaztek espetxean gaur daramatzaten egunak.

271.100

Kartzeletara joan-etorrietan egindako kilometroak.

63.900

Kartzeletara egindako joan-etorrietan gastatutako euroak.

89.497

Gurasoen manifestuak jasotako sinadurak, web orriaren arabera.

ATE IREKIAK

UNIBERTSITATE GRADUAK

Auto baten xasis-a 3D inprimagailu baten eraiki dugu.

Nerea Sanchez Echezarrera

Errenteria. Prozesu Industrialetako Ekoteknologiaren Ingeniaritza, 3. maila

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ARRASATE · APIRILAK 26

OSTEGUNA, 17:30 / Areto Nagusia

ORONA IDEO · APIRILAK 28

LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BIDASOA · APIRILAK 19

OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

OÑATI · APIRILAK 28

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

BILBAO · MAIATZAK 5

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

BILBAO · APIRILAK 19

OSTEGUNA, 18:00

Bilbao Berrikuntza Faktoria

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA

Basque Culinary Center

DONOSTIA · MAIATZAK 12

LARUNBATA, 10:30 / Auditorium

902 110 436
www.mondragon.edu/prest



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

Altsasuko gazteek aske izan behar dutelako!

Erraz esaten da: hiru gaztek urte eta erdi kartzelan, badaezpadako egoeran, inoiz gertatu behar ez zen borrokaldi batengatik. Ederki ordaindu dituzte dagoeneko eragindako zauri arinak. Luze joan dira giltzapeturik emandako egunak eta luze gurasoek eta lagunak egindako kilometroak eta pasatutako atsekabe eta minak. Gainera, beste bost gaztek dute bizitza osoa izorratuko liekeen zigorraren mehatxua. Horien denen akatsa, euskaldun izatea.

Basapizti amorratuaren gisan jokatu dute Estatuako aparatuen arduradunek. Ana Rosa Quintanak marraztutako ekintza terroristaren bidetari jarraikiz, haien helburu bakarra gazte horiek suntsitzea izan da. Horretarako fabrikatu dituzte probak, akusazioak eta epaiketako prozedurak, asmatutako delituari forma emateko. Haien estatusa eta ahalmen guztia, zeken, baliatu dute beldurra eta izua eragiteko. Guardia Zibila, Estatuako Fiskaltza eta Auzitegi Nagusiko Epailtza, agintekeriak Estatuaren kuttunak; estatu indarkeriaren tresna legalak...

Miresgarria izan da gurasoen adorea eta herritarren erantzuna. Makina bat ekintza burutu dituzte hilabete hauetan, ilusioz eta beldurrez. Eta lortu dute Estatuaren gehiegikeriaren salaketa gizarteratzea; baita nazioartean ere oihartzuna izatea. Orain, heldu da epaiketaren unea, iragana eta etorkizuna erabakiko dituen. Kezka eta beldurra izugarria bada ere, bada itxaropena. Ez da alferrik izanen egindako ahalegina. Berriki, bi zaplazteko jaso ditu Estatuak, egindako gehiegikeriengatik, Belgikak eta Alemaniak emanak. Horiek argi erakutsi diote justiziak beste aldagaiak ere badituela, agintekeriari eta militarismo garrasturik gabea.

Horregatik guztiagatik, Adur, Oihan, Jokin, Aratz, Julen, Jon Ander, Iñaki eta Ainara, eta gurasoek eta babesa emandako herritar guztiak ez galdu kemena, une honetan, zaila izanen baitu Entzutegi Nazionalak errailetan prefabrikatutako epaia ematea. Altsasuko gazteek aske izan behar dutelako!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak bame). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta hurremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Klima-aldaketa legea

HIRU MUGAK BATERA

Espainiako Estatuak prest izan behar du klima-aldaketa lege bat, urte amaiera baino lehen Bruselan aurkezteko. Lege honen eztabaida bete-betean gaudenean, jakin dugu Espainiak ez bakarrik ez dituela berotegi-efektuko gasen isuriak murriztu, baizik eta gainera 2017 urtean %10ean areagotu dituela. Horrek baieztatzen du Espainiak ez duela Pariseko Akordioan hitzartutakoa beteko, hau da, 2030ean isuriaren %40a murriztea 1990 urtekoen aldean.

Gobernuarendako larria den egoera honen aurrean, interes-taldeek beren jarrera egokitzen ari dira ahalik eta etekinik handiena ateratzeko. Horrela, hainbat neurri hartzeko proposamenak aztertzen ari dira, besteak beste zentral nuklearren bizitza luzatzea, berotegi-efektuko gasen

isurietan hain kutsagarriak ez direlako aitzakiarekin.

Beste proposamen bat, industria kutsagarrienen isuriaren merkaturatu ordaindu beharreko isuritako CO2 tonaren prezioa igotzea da, ustez horrela, ahalik eta gutxien isurtzeko eta horrela gutxiago ordaintzeko teknika hoberenak aplikatuko dituztelakoan. Baina proposamen honek, berotegi-efektuko gasen isurketa murrizketa lehenestea du helburu, beste ondorio batzuk kontuan hartu gabe.

Zentral nuklearren kasuan, hauen arriskugarritasuna aintzat hartu beharko litzateke, batez ere izandako istripuek agerian utzi dutena eta hondakin erradioaktiboek kudeaketak sortzen duena.

Isuriaren komertzioari dagokionez, uste bezala ez duela funtzionatu egiazta daiteke. Esate baterako, zementuaren industriak negozioa egin du dohainik eman ondoren soberan izan dituen isuri eskubideak salduz. Eta larriagoa dena,

hainbat lege iruzur erabili da hondakinak errausten dituzten zementu-fabrikek isuriek negoziorekin borobilagoa egin dezaten. Horrela, CO2aren prezioaren igoerarekin, zementu-fabrikek interes handiagoa ageri dute hondakinak errausteko eta ondorioz jardura hau sustatzen ari dira, kontuan hartu gabe, osasunerako hain kaltegarriak diren dioxina, furano, partikula eta beste hainbat kutsatzaile arriskutsu sortzen direla bide horretatik.

Ezin dira hauspotu eta sustatu gizarteak arbuiatzen dituen praktika hauek, eta kutsaduraren kontra neurri eraginkorrak hartzeko erabakimen politiko ezagatik eztabaida zaharrak berriz mahaigaineratu ere ez. Kutsadurari eta hondakinak errausteari aurre egiteko konponbidea energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuen sustapenetik, eta, produktuen berreskuratzea eta berrerabiltzea bultzatuko duten egitasmo sendoak ezartzetik etorriko da.

OBJEKTIBOTIK

Altsasukoak gogoan Binakako finalean

Binakako finalean pilotari guztien aldeko pankartak zeuden. Harmailetan sakandarren aldeko kolore gorria nagusitu zen, baina frontoi guztiak egin zuen bat *Altsasukoak askatu!* oihukatzerakoan.



guaixe

SAKANAKO ATEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:
GK, Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gomunikazioa.eus
Administratzailea:
Gixane Andueza Goikoetxea
admin@guaixe.eus

Kolaboratzaileak:
Rebeka Mendoza
Leyre Mateos Galartza
Zuzentzailea:
Felix Alzelai Iriarte

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
krolak@guaixe.eus
Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

María Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus

eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107
618 882 675
661 523 245



Matrikulazio maiatzaren 7tik 11ra izanen da. Maiatzaren 8an ate irekien jardunaldia.

Ziklo berria Lanbide Heziketaren eskaintza indartzeko

Mendekotasun egoeran dauden pertsoneri laguntzea Erdi mailako zikloa batu da eskaintzara, euskaraz

SAKANA

Ziklo berrietako bat Sakanak LH institutuan emanen da: Mendekotasun egoeran dauden pertsoneri laguntzea. Gainera, ziklo hori euskaraz emanen da. Ikastetxean albistea "pozik" hartu dutela jakinarazi digu Iñaki Urbitarte zuzendariak. "Gurean ziklo teknikoak ditugu eta aspaldi genbiltzan hain tekniko ez den ziklo bat ezarri nahian". Eskaintza berriak eskaerak betetzeaz aparte, emakumezko Lanbide Heziketa institutua erakargarriagoa egingen diela espero dute. Ziklo berria euskaraz izateak zegoen eskaera bat betetzen duela gaineratu du zuzendariak. Zikloa behar bezala hasteko ikastetxean azpiegitura prestatu beharko dute. Sukaldea, alde batetik, eta hainbat ohe dituen logela, bestetik.

Heldu den ikasturteko beste berritasuna da fabrikazio me-

kanikoko produkzioaren programazio zikloaren bigarren kurtsoa eskainiko dela eta ikasleek ikasketa duala egingen dute. Hau da, ikasturtea institutuaren eta lantegien artean emanen dute.

Institutuaren eskaintza

Sakana LH institutuan Merkataritza Zerbitzuetako Oinarrizko Lanbide heziketa ematen da, batetik. Erdi mailako honako ikasketak eskaintzen ditu: soldadura eta galdaragintza, mantentze-lan elektromekanikoa eta Mendekotasun egoeran dauden pertsoneri laguntzea. Bestetik, honako Goi mailako zikloak eskaintzen ditu: fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa eta industria-mekatronika. Eskaintza erregimen bereziko bi kirol ikasketekin osatzen da: mendi ertaineko gida eta eskaladakoa.

Euskaraldirako bakarrik lau herri apuntatuta

Irurtzun, Lakuntza, Arbizu eta Etxarri Aranatz dira euskararen erabilera sustatzeko ekimenean izena eman duten herriak. Azaroaren 28tik abenduaren 3ra egingen da Euskal Herri osoan. Izena emateko epea hilaren 30era arte luzatu dute

SAKANA

Euskal Herriko lurralde guztietako 32 erakundek eta eragile euskaltzalek sustatutako ekimena da Euskaraldia, tartean da Nafarroako Gobernua. Bere helburua da euskararen erabilera handitzea; hau da, kalean, etxean, lantokian... edonon, euskara gehiago entzutea. Horretarako, antolatzaileek diote "gure hizkuntza ohiturak astindu eta ohiko harremanetan euskara gehiago erabiltzeko ariketa" dela Euskaraldia.

Izan ere, azaroaren 23tik abenduaren 3ra, 11 egunez, euskaraz hitz egiten edo ulertzen dugun guztion artean euskaraz egitean datza. "Euskal Herri osoan eta elkarrekin arituta, gure egunerokoan eragin genezake".

Antolaketa

Euskaraldia herriz herri antolatu nahi da. Baina enpresa eta entitateetan ere egiteko atea zabalik daude. Euskararen era-



Irurtzun 365 euskaraz bideoklipa.

bilera handitzea nahi duten herriek izena eman behar dute. Horretarako, antolatzaileek proposatzen dute herriko eragile eta euskaltzaleak batzordeetan antolatzea eta denek erabakitzea Euskaraldian parte hartu edo

ez. Sakanan dauden 15 udalerrietatik eta 29 herrietatik soilik lau udalerririk eman dute izena orain arte: Irurtzun, Lakuntza, Arbizu eta Etxarri Aranatz.

Hasiera batean izena emateko epea igandean despeditzen zen, baina antolatzaileek hilaren 30era arte luzatzea erabaki dute. Beraz, ibarreko gainontzeko herriek oraindik ere izena emateko aukera dute. Informazio guztia www.euskaraldia.eus web orrian dago.

Gero zer?

Izena eman ondoren, Euskaraldiko antolatzaileek herrietako batzordeei ekimena behar bezala prestatzeko lan tresnak eta baliabideak eskainiko dizkiete, nor bere herrian lan egin dezan. Nafarroa mailako mintegi edo bilerak dira. Euskaraldian parte hartuko duten herritarrek prestatu egin beharko dira eta hitzun sare hori egoki aritzeko jokabideak ere emanen dituzte.

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA

**Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta**

Astehenetik ostiralera
Eguneko menua
9€

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 · Altsasu

Sorgiñak
taberna

LAKUNTZA
948 576 357

URROTZEKO BARRUKO ERREFORMA

ERTA ELIZONDO ARRUABARRENA ARKITEKTOA arkiterta@outlook.es 687 06 07 87 Etxarri Aranatz

DRANGO EGOERA

LEHENGO EGOERA

ARGIZULO

SEKZIOA

2. SOLAIRUA
1 SARRERA. ATARTEA
2 JANGELA
3 EGONGELA
4 SUKALDEA
5 ARGIZULO ESPAZIOA ERABILERA ANITZA
6 KOMUNA
7 LOGELA
8 -DESPENTSA
9-TRASTEROA

Dinamikoa, Moldagarria, Funtzionala.



Benetako joaldunak bezala jantzi ziren gurasoek egindako jantziez.

Joaldunen baratzak fruituak ematen segitzen du

Iskidi taldeak hirugarren urtez joaldun eta trikimakoen (hankapaloak) ikastaroa despeditu berri du

IRURTZUN

Aste Santuarekin batera despeditu zen Iskidi taldeak antolatu eta lastailean hasi zen joaldun eta trikimakoen ikastaroa. Sei hilabetez 6 eta 12 urte arteko 25 neska-mutikok parte hartu dute ikastaroan. Atakondoa eskola publikoan ostiraleko klaseak despeditu eta segituan ekiten zioten ikasteari.

Urte erdi horretan joareak jotzen ikasteaz aparte, benetako joaldun baten moduan jantzen ikasi zuten, bakoitzari dagokion joare, jantzi eta ttuntturroarekin. Azken horiek eta trikimakoen haien gurasoek egin dituzte. Horretarako, Iskidikoek propio ikastaroa antolatu zuten. Gurasoek eskulanetan euren trebetasuna erakutsi zuten, udalak eta Pikuxarrek utzitako gunetan.

Handik atera ziren gero neska-mutikoen ikastaroan erabili

zituzten txano eta zurezko hankak. Baina ederki trebatu eta gero jendaurrean ere aritu dira, bitan behintzat bai. Lehenik, abenduaren 24an Olentzerori Irurtzunen prestatu ongi etorrian izan zen. Orduan Iskidiko joaldun nagusiekin batera aritu ziren. Orritz dantza taldeak otsailaren 20an antolatutako dantza jaialdian ere parte hartu zuten. Inauterietan joaldun txikiak ateratzekoak ziren, baina eguraldiak bertan behera utzi zuen asmoa. Hala ere, Iskidi taldeak erreleboa bermatua dela dirudi.

Bestalde, Iruñeko Amaiur dantza taldeak Folklore eguna antolatu du iganderako. 10 dantza taldek parte hartuko du, haien artena Orritz, Galtxorratx eta Elai Alai sakandarrak. 11:30ean Alde Zaharrea kalejira egiten dute eta 13:00etan erakustaldia Burgoen plazan.



ARTXIBOA

Zortzi langaberendako kontratua

Altsasuko Udalak zortzi langabetu kontratatuko ditu honako lanpostuak betetzeko: kisugil edo igeltserotzako ofiziala (2), zurgintzako ofiziala (1), margogintzako ofiziala (1), basozaintzako ofiziala (1) eta peoia (3). Aukeratutakoei lanaldi osoko urte erdirako kontratua egiten zaie. Enplegu bulegoan izena eman behar da hilaren 20a baino lehen.



UTZITAKOIA

Urritzolako eliza, prest

Joan den urtean teiltuan egindako lanen ondoren, negu akaberan barruko lanen txanda izan zen. Eta horiek egin ondoren, konponketa txikien eta garbiketaren txanda iritsi zen. Larunbatean zortzi bat urritzolar elkartu ziren lanek elizan utzitako arrastoak garbitu eta dena txukun uzteko. Lanek 11.136,46 euroko aurrekontua dute, eta 2.836,46 falta dituzte.

Ikasle eguneko indentifikazioek gurasoen kexa ekarri dute

Policia Nacionalak autobusa desbideratu zuen eta bi ordu egon ziren haiek identifikatzen

SAKANA

Ikasle Abertzaleak taldeak LOMCEren kontra protestatzeko grebara deitu zituen ikasleak martxoaren 21ean. Iruñeko manifestaziora joan ziren bi autobusak Berriobeitiko aurreneko errotondara iritsi zirenean, Policia Nacionalak haiek desbideratu eta Zuastira eraman zituen. Poliziek ikasleak jaitsi arazi, gazteak miatu eta banan-banan identifikatu zituzten.

Andra Mari ikastolako DBH 3 eta 4ko ikasle batzuen gurasoek "kezka" azaldu eta gertaera salatu dute: "gure seme-alabak 14 eta 16 urte bitarteko adin txiki-koak dira. Legezkatutako mobilizazio batetara zihoazen autobusean, eskubide osoz, gurasoon baimenarekin. Adin txiki-koak identifikatu eta miatzea legezkoa den edo ez ez da argitzen legedian, baina era bateko bidegabekeria dela deritzogu, are gehiago, deliturik egiten ari ez zirenean". Gurasoen iritziz, "gure seme alaben oinarrizko eskubideak urratuak izan dira. Guraso gisa, salaketa publikoa egitea deritzogu gure seme alaben eskubideak defendatzeko eta horretan jarraituko dugu beste pauso batzuk ematea ere baztertu gabe".

Autoen seguruak



MAPFRE
La aseguradora global de confianza

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM
948 563 354
jimazpr@mapfre.com
San Juan 48
ALTSASU

Zure esperientziarik onena
PREZIO ONENEAN

Kataluniari elkartasuna

Espainiako Auzitegi Nazionalak Kataluniako CDR edo errepublikaren defentsarako batzordeen kontrako operazioa abiarazi zuen asteartean eta zazpi pertsona atxilotu zituzten. Horren kontra protesta egiteko Askapena erakunde internazionalistak kontzentrazioa deitu zuen Altsasuko udaletxe parean asteazkenean.



**PERTSONA BAKOITZAREN ATZEAN ISTORIO BAT DAGO.
AURREAN, ASKOZ GEHIAGO EGON DAITEZKE.**



Egun, nagusitzea nork bere burua zaintzea, aktibatzea eta berriro maitemintzea da.
Ezagutzea da, eskubideez hitz egitea, amets berriak eraikitzea...

ADINEKOAK POSITIBOAN

Biltokiren 50. urteurrena, berrikuspena

Elkarteak mende erdia betetzean, asteburuan, ospakizun handia izan da herrian, ume, gazte eta helduen partetik. Biltoki elkarteaz hizketatzeko Luis Igeltz sortzailearekin eta egun erabiltzaile den Beñat Torrenterekin elkartu gara

Leyre Mateos Galarza LAKUNTZA
Lakuntzako Biltoki gazte elkarteak 50 urte bete dituela ospatzeko hiru eguneko festa antolatu du. 50 urte luze hauetan jende askoren artean atera da aurrera elkarteak. Aurtengoa desberdina izan da, adin guztietako jendea parte hartu ahal izan du. Txikiendako jokoak egin ziren, gainera Biltoki sortu zutenendako omenaldia egin zen. Biltokitik pasa den jendeak pareta guztiak argazkiz beteta ikusi zituen, asteburuan.

Luis Igeltz, Biltoki gazte elkarteak sortu zen garaian Lakuntzako apaiza zela, gazteendako lekua lortzeko ilusio handiz aritu zen. Igeltzek adierazi duenez: “gazteek elkartzeko lekua behar zutela ikusten nuen, bere ametsak abiatzeko. Ideia horiekin pausuak eman eta hortik hasi ginen”. Elizaren atzean zegoen lokala, zinema, hartu eta lan asko eginez biltokia aurrera atera zuten. Luisendako oso garrantzitsua izan zen, “Francoren denboran ez zegoen tokirik askatasunaren bidetik elkartzeko eta norberak bere askatasunetik ideiak bideratzeko”.

Gatazka handia sortu zen sorreraren momentuan, garai hartan neskak eta mutilak ba-



Belaunaldi desberdinetako pertsonak ospatu zuten Biltokiren 50. urteurrena.

tera lokal batean ibiltzea arazo bat izan baitzen. Igeltzek dioenez, “bazen Biltoki ongi ikusten ez zuena jendea, neskak eta mutilak gurasoak gainean egon gabe bakanal bat izango zela uste zuten”; horregatik, kritikei aurre egin behar izan zieten eta bere pentsatzeko moduari fidel jarraitu.

Lehen eta orain

Gaur egun gizartea urte haietatik aurreratu da, eta desberdintasun nabariak daude lehengo eta gaurko biltokiari buruz hitz

egitean. Igeltzen ustez gaurko gazteek ez dituzte beraiek izan zituzten oztupoak askatasunean bizitzeko, eta nabaritzen du zerbait antolatzeko orduan, “zeinen erraxa izaten zen garai hartan nahi zenuen gauza bat antolatzeko jendearekin kontaktzea, beti izaten zenuen jende gaztea gogoekin gauzak egiteko”.

Biltokiko kideen kopurua handitzen joan da Beñat Torrentek, orain dela zazpi urte inguru Biltokin sartu zen gazteak esan bezala, “sartu ginenean gu baino 8 urte zaharragoak zeuden

eta orain gazteagoak sartzen dira”. Igeltzek dio arazoa ateratzean izaten dela, adina finanturik ez dagoenez oso zaila baita zehaztea noiz atera, eta hori beti arazo bat izan da. Baina Torrenteren ustez arazoa ez da hori: “gu sartu ginenean helduak zeuden eta ez zen arazorik izan. Gehiago nabaritzen da gauzak egiteko gogoan. Denetarik dago”.

Biltokik herriari gauzak ematen jarraitzen du 50 urte ondoren. Torrenteren ustez herriari gauzak ematen dion elkarteak Biltoki; baina, garrantzitsuenak: “jendea elkartzen den tokia da eta bertan harremana egiten da, beti egongo da dena emango duen jendea eta ezer ematen ez duena”. Baina Igeltz eta Torrente egoeran jarri eta bien artean ondorio batera ailegatu dira: Biltokia bakarrik lokala izanik herriari zerbait ematen dio, gazteak bilduta daude elkarrekin bere arazoak eta gauzak komunean jartzen.

Ospakizuna

Biltokiak herriari laguntza ematen dio zenbait festetan gauzak antolatzen ere. Torrenteren ustez, “Festak antolatzen ditugu, Olentzero eguna ere, Lakuntzako Pertzantza dantza egiten dugu San Migelen...” Baina asteburu honetarako antolakuntza ahalegin gehiago behar izan ditu. Hasieran 7-8ko talde txiki bat hasi ziren gauzak pentsatzen eta ideiak hartzen, gero zehaztutakoan Biltoki osoari pasa zioten ideia martxan jartzeko. Torrentek dioenez, “denbora eskatzen du, jai-busa lehengo urtean eskatu behar duzu, kontzertuak zehazteko taldeekin hitz egin behar da... Festak eta gero hasi ginen, lastailan”.

Azkenean, Lakuntzak 2018ko apirilaren 7an, larunbata jendez bete zen, baina festa ez zen larunbatean bakarrik izan. Ostiralean argazki ikustaldia eta pintxo poteoa egon zen, ekitaldiaz jarraituz, bokata eta parranda. Larunbatean, berriz, haurrendako puzgarriekin hasi zen goiza 11:00etan, kalba jolasarekin jarraituz, Lakuntzako jolas tradizional batekin, trikipotea eta bazkaria, horien ondoren Biltokiko sortzaileei omenaldia egin zieten eta elektro-txarangarekin jarraitu zuten arratsaldea, eta kontzertuekin bukatu zen: Alkarajo, Behin Betiko, Herdoil, Hell Beer Boys, Puraposse eta DJ Garate izan ziren lakuntza gau guztia esna izan zituzten taldeak. Asteburua bukatzeko igandean dantzariak eta buruhandiak eta auzatea egin ziren.



Behin Betiko taldea bueltan izan zen.



SAN FERMINETAKO PROGRAMA KULTURALEAN PARTE HARTZEKO GONBIDAPENA/AUKERA

San Ferminetan, Takonera parkeko Vistabellako gunean Bizi Nafarroa Oinezek ikuskizun programaketa zabala prestatu nahi duela eta dei egiten die Sakanako musika, antzerki, dantza talde, umorista nahiz malabarista zein animatzaile eta artista guztiei.

Nafarroa Oinez San Ferminak egitaraua osatzen LAGUNDU nahi duen oro, jar dadila harremanetan Nafarroa Oinez arduradunekin maiatzaren 2a baino lehen.

Kontaktua: 606 03 09 66 // koordinazioa@oinez2018.ikastola.eus

BIZI SAN FERMINAK





Ama Lur azoka, bi aste barru zazpigarren edizioa izanen du. ARTXIBOA

Ama Lur, azoka eta trebakuntza Belardi elkartearen eskutik

Belardik Ama Lur azoka apirilaren 22an egingen du. Horrekin batera Ama Lur Jardunaldiak antolatu ditu

ETXARRI ARANATZ

Sakanako nekazaritzaren eta abeltzaintzaren erakusleho izan nahi du Ama Lur azokak. Ibarreko nekazariak, abeltzainak eta ekoizleak biltzen dituen Belardi elkarteak hala ere, elikadura burujabetzan gehiago sakondu nahi du eta, horregatik, Ama Lur Jardunaldiak antolatu ditu. "Herri lurrekin zer egiten ari garen aztertu nahi dugu horietan. Gure ondorengoei lurra emankortasun maila berean edo hobean utzi nahi genieke" azaldu digu Aritz Ganboak, Belardiko kideak.

Horregatik, jardunaldian osasunaz aparte, elikadura burujabetzaren oinarria den lurrari eragiten dioten bi elementu nagusiri erreparatuko diote. Batetik, transgenikoak edo genetikoki eraldatutako produktuak, "herrialde batzuk haiek erabiltzea debekatuta dutena, baina hemen ez". Bestetik, glifosfato belar-hiltzailearen erabilera suposatzen duena; "Europar auzibidean jarri dute, baina lobbyak presio egiten ari dira. Jardunaldiak transgenikoak eta glifosfatoa lur publikoetan erabiltzearen kontrako ekimenaren berri emateko balioko du. Izan ere, Belardik udalei hori eskatu zuten azkeneko die. Jardunaldiak despeditzeko elikadura burujabetzari buruzko mahai-ingurua prestatu dute Belardikoek. Hitzaldi eta mahai-inguruak Etxarri Aranazko kultur etxean izanen dira, 18:30ean hasita.



Belardi elkartearen egitaraua

Apirilak 19, osteguna
• Transgenikoak eta glifosfatoa erabilerari buruzko mahai-ingurua, Jose Ramon Olarieta, ingeniari agronomoa eta Lleidako Unibertsitateko kimika eta edafologia irakaslea eta Aritz Ganboa, Belardikoa.

Apirilak 22, igandea
• Ama Lur azoka, 10:00etatik 14:30era.

Apirilak 26, osteguna
• Elikadura burujabetzari buruzko mahai-ingurua, Judith Garcia, Gipuzkoako EH Bilduko batzarkidea, Juanma Intxaurrendieta, Intiako gerentea, eta Imanol Ibero, Nafarroako EHNEko presidentea.



Lander Kaspistegi, Maialen Ruiz, Silvia Sanchez, Begoña Zestau, Alfredo Prieto eta Irune Iriarte astearen aurkezpenean.

Kulturartekotasuna ikasgelatik plazara salto

II. Irurtzungo Kulturartekotasun Astea astelehenean hasiko da. Atakondoa eskolan astegun bakoitza kontinente bati eskainia izanen da. Astea Munduko Arrozekin (apirilak 21) eta Liburuaren Egunarekin (apirilak 23) osatuko da

IRURTZUN

Atakondoa eskola publikoan heldu den asteko ikasketa-egun bakoitza munduko kontinente bati eskainia izanen da, 09:00etatik 15:00etara. Hala, astelehenean Asia izanen da protagonista. Asteartean Afrikaren txanda izanen da. Ozeaniaren txanda asteazkenean izanen da. Amerikari eskainiko diote osteguna eta, bukatzeko, ostiralean, Europa izanen da ardatza. Ikasleek gaiarekin lotura duten nahi dutena eramateko aukera izanen dute.

Ikasleek astean zehar dagokien kontinenteko jakiak prestatuko dituzte. Errezeta-liburua sortzen ari dira horretarako. Aurtengo berritasuna da jangelan ere isla izanen duela Kulturartekotasun Asteak, izan ere, dagokien kontinenteari lotutako menuak dastatzeko aukera izanen dute ikasleek. "Horrekin poz-pezik daude" esan zuen zuzendariak.

Bestalde, gurasoei zuzendutako bi solasaldi ireki antolatu dituzte. Asteartean emakumea

eta musika izanen dute. Oste-gunean, berriz, jolasak, merienda eta istorioak. Solasaldiak 15:00etatik 16:30era izanen dira.

Munduko Arrozak

Berriro ere plazan kultura eta ezagutza partekatzeko aukera izanen da. Nahi duen guztiak arropa prestatzeko aukera izanen du. Bestela, beste kulturetan nola prestatzen den ikusteko aukera izanen da. Ohi bezala, sentsibilizazio txokoa, jolasak eta beste izanen dira Munduko Arrozetan, apirilaren 21ean, larunbatean, 10:00etatik aurrera.

Liburu Eguna

Apirilaren 23an, astelehenean, Liburu Eguna ospatuko da, bai

PARTE HARTZEKO GONBIDAPENA: HELDU DEN ASTEKO SOLASALDIETAN ETA MUNDUKO ARROZETAN

ta Kulturartekotasun Astearen barruan. Ikasleak hiru liburu bidaiari idazten ari dira. Klase batean testu bat idatzi eta beste bati pasa behar diote. Haiek aurreko guztia irakurri eta ekarpen idatzia egin behar dute. Sanchez zuzendariak azaldu zigunez, "baldintza bakarra da munduko toki beretik ezin direla pasa. Horrek klasean ikerketak egiteko aukera ematen du. Esaterako, batzuek ez zekiten Mongolia non zegoen, eta horrela ezagutzeko aukera izan zuten". Idatzi bitartean ipuinak egiten ari diren ibilbidea mapa batean irudikatzen ari dira. A ereduko liburu bidaiari bat eta D ereduko bi egiten ari dira. LHko eta DBHko ikasleak testuez arduratzen dira eta Haur Hezkuntzakoak marrazkiez.

Eguna, liburu trukearekin orri markatzaileen tailerrekin eta beste osatuko da. Ezkaratzean zintzilik dauden postalak ere Liburu Egunaren zati dira. Plazan ospatuko dute eguna.



WWW.NAFARROA.EUS

"Navarrorum" Altsasun bisitan

Euskarabideak Nafarroan barna zabalduko du *Navarrorum*. *Euskararen gaineko dokumentu nafarren bi mila urteko ondarea* erakusketa. Behin behineko egutegiaren arabera abenduaren 1etik 23ra bitartean Altsasun ikusgai izanen ikusgai. Bertako dokumentuetan oinarrituta euskararen "nafartasuna" nabarmentzen da.

Errepublika Eguna, Altsasun ekitaldia eginen da bihar

Larunbata apirilaren 14a da, 1931n Estatu Espainiarrean II. Errepublika aldarrikatu zen eguna. Data berezi hori gogoan, Ezker Batuak ekitaldia eginen du bihar eguerdian Altsasun, udaletxearen aurrean dagoen Soldadu Langile Batailoietan ibili zirenen omenezko oroigarriaren ondoan. Bertan, manifestua irakurriko da, lore es-



kaintza eginen da eta kantu eta musika errepublikarrak entzuteko aukera izango dute bildutakoek, Errepublikako banderak presente direla

Elikagai alerta bertan behera utzi dute osasun arduradunek

Kontsumoaren, Elikagaien Segurtasunaren eta Nutrizioaren Espainiako agentziak (AECOSAN) bertan behera utzi du Katealde enpresak ekoiztutako pate batean Listeria agertu izanaren alerta. Produktuetan bakterio ez dela ageri jaso dute Euskal Autonomia Erkidegoak zein Nafarroako osasun agintariek egindako kontrol analisien emaitzek

Euskal Autonomia Erkidego (EAE) osasun agintariek Altsasuko Katealde enpresaren foie-moussaren lote baten Listeriaren maila altuak atzeman ondoren, Kontsumoaren, Elikagaien, Segurtasunaren eta Nutrizioaren Espainiako Agentziak, AECOSANek elikagaien alerta bat zabaldu zuen martxoaren 7an. EAEko eta Nafarroako osasun agintariek alertaren jarraipena egin dute eta ezarritako kudeaketari segituz, produktua eta susmagarria suertatu zen loteari analisi berriak egin dizkiote; horien emaitza Listeria monocytogenes-en gabezia izan da. Enpresak egindako autokontrol analisiek ere emaitza bera izan dute.

Zabalduko informazioaren gainean Elikagaien Alerta Sareak (SCIRI) ezarritako gestio prozedurari jarraiki, AECOSANek alerta bertan behera utzi du.

Etxarri Aranatzek hartuko du eskola publikoen festa

Sakana, herri eskolekin sortzen festa apirilaren 21ean ospatuko da Etxarri Aranatz. San Donato eskola publikoa arduratu da aurrean haren antolaketaz. *Ekin gurekin* lelopean egun osoko egitaraua prestatu dute.

11:00etan hasiko den egitaraua hainbat ekitaldi daude, tartean egiten edo haien zozketako txartelak erosten parte hartzea deitu dute antolatzaileek. Bestetik, herri bazkaria ere izanen da, haur eta helduendako. Hartan parte hartu nahi duenak ostiralera arteko epea du izena emateko. Horretarako, Sakana herri eskoletatik pasatu besterik ez dute egin behar.

Olatzagutiko zamarroak Avilan izanen dira bihar

Otsailaren 10ean ospatu ziren herri ihoteak Olatzagutian. Zamarraundi, zamartxiki, iratxoak, Mari Arroka eta ihote olaztiarreko gainerako pertsonaiekin batera Anhaizeko Basaldunak (Nafarroa Behera) eta Navalo-sako (Avila) Cucurumachoak parte hartu zuten ihote segizioan eta hari segitu zion parrandari.

Olatzagutiko ihote segizioak azken horiei bihar bueltatuko diete bisita eta Mascaravilan parte hartuko dute, Avilako maskaren eta dantzen laugarren jaialdian. Egundako egitaraua prestatu dute. 16:30ean aterako dira kalera Zamarroak eta Avilako bost maskaradetako pertsonaiek, dantza taldeak eta beste.




LORATEGI EGUNA

apirilak 21 larunbata

Zatoz gu ezagutzera!

OPARI SEGURUA*
Izango duzu



Lorezaintza eta Basogintza makinarian adituak

Tfnoa: 948 461 734
Pol. Ind. Zumurdifeta, 6
31820 ETXARRI-ARANATZ (Na)

Tfnoa: 948 500 392
Pol. Ind. Akaborro, 19
31820 IRURTZUN (Na)



ZURE NEURRIRA EGINDAKO BIDAIAK

Apaolaza Autobusak
943.72.48.10

info@autobusesapaolaza.com
www.autobusesapaolaza.com



Arruazu atzera ere Venecia txikia bihurtu zen. UTZITAKOIA



Irañetan ubeldeak gainezka egin zuen eta kalea moztu zuen. UTZITAKOIA

Ubeldeak arrotik kanpo

Arakil ibaiak gainezka egin zuen Sakanako herri guztietan. Arruazun, plazaraino iritsi zen ura. Bigarren mailako hainbat errepede itxita egon dira. Baina zorionez, ez da kalte pertsonalik izan. Eguraldiak onera egin du eta ibaia berera bueltatu da.

SAKANA
Euria eta euria. Horixe izan da azken eguneko panorama. Eta nola. Etengabean, gelditu gabe. Atzo tarteka atsedena eman zuen euriak eta bierrik, asteazkenean dagoeneko gainezka egin baitzuen Etxarriraino Burunda eta Etxarritik aurrera Arakil

izena duen ibaiaren urak. Herri guztietan atera zen ibaia, irudi ikusgarriak utzita eta naturaren fenomenoaren aurrean pertsonak zeinen txiki garen erakutsita.

Arruazun plazaraino iritsi zen ura. Lakuntza, Arruazu eta Uhar-te Arakil arteko bigarren mailako errepede itxi behar izan

zuten, eta Arruazuko sarrerako zubia ere urpean geratu zen. Arbizu eta Lizarragabengoa artean ere urak errepede hartu zuen. Izurdiatik Errotzerako errepede eta Errotzik Urritzolarakoa ere moztu ziren. Eta beste hainbat tokitan ere. Zorionez eguraldiak onera egin du.



Etxarri Aranatzen ere ibaiak inguruko lurak hartu zituen. ARGAKIJA BEA XXX



Irurtzungo industrialde ingurura hurbildu zen Larraun ubeldeko ura.



Arbizutik Lizarragabengoara iristea ezinezkoa zen.

Amaya
Okindegi-gozotegia

**ZERBITZU BERRIA
BETIKO TOKIAN**

San Juan kalea, 50
Altsasu
670 389 017

URTEURRENA



Sagrario Ezkutari Mendiola

I. urteurrena

Etxarri Aranatzan, 2018ko apirilaren 13an

Zeinen erraza zu maitatzea, Txati

Zu familiye

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaxe.eus

► Eskelen tarifak: 50,82€ / 96,80€/130,68€

prezio hauek BEZa barne dute.

► Bazkideek % 10eko deskontua dute.

► Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.

JAIOTZAK

- **Irati Gorritz Loban**, martxoaren 22an Etxarri Aranatzan.
- **Laila Lizarraga Berastegi**, martxoaren 27an Lakuntzan.
- **Laila Troyano Barriga**, martxoaren 27an Altsasun.
- **Irune Prieto Goñi**, apirilaren 2an Irurtzunen.
- **Inge Mendiluze Goñi**, apirilaren 3an Altsasun.

EZKONTZAK

- **Juan Jose Aberasturi Martin eta Miren Edurne Agirre Galartza**, apirilaren 3an Iturmendin.
- **Elena Sanchez Pinto eta Juana Mari Rendo Gonzalez**, apirilaren 9an Altsasun.

HERIOTZAK

- **Cesareo Elso Berastegi**, martxoaren 30ean Lizarragan.
- **Maria Jesusa Araña Mendiuetza**, martxoaren 31n Arbizon.
- **Pilar Mazkarian Guridi**, apirilaren 5ean Altsasun.
- **Jose Luis Orcaray Irurzun**, apirilaren 11n Irurtzunen.

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA..

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKIAK@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

- GUAIXEK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen

gorabeheren erantzukizunik. ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarkiak Guaixe paperean eta Guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Aste batez 3 euro, bi astez 6 euro eta hiru astez 8 euro (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

IRAGARKI SAILKATUAK

OHARRAK

Odol-emaileak. Lakuntza: apirilaren 23an, 17:00-20:30

Altsasuko irakurle taldea. Pilar Labaien hizkuntza eta literatura irakasleak zuzendutako literatura hizketaaldia izanen da apirilean. Margaret Atwooden . liburuz hizketatuko dira.

Sakana Trenaren alde. Taldea astelehenero, 19:00etan, elkartzen da. Behin behineko biltokia LABek Altsasun duen egoitzan da, han egiten dira bilerak.

Otdiko ermitaren alde. Eraikina konpontzeko diru bilketa egiten ari dira. Ekarpenak parrokian edo herriko banku eta kutxetan zabalduko kontuetan sartu daitezke.

Enplegarritasuna hobetzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresari Elkarteak langabeei eta lan bila dabilenentzako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

Josefina Arregui klinikoak bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 euro edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosefinaarreguilagu-

nak@gmail.com edo amigosefinaarreguilaguak.blogspot.com

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

3MBk kontu korrontea zabaldu du Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Altsasuko Udaltzaingoa Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Eurretakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabaldu eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu

Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduerara sendotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

GoiEner. Iruñeko helbide berria: Kale Berria 111, 31001 Iruñea, tel 948 504 135. Hileroko 1. eta 3. asteazkenetan, 17:00-19:00.

Nafarroako Eikagaian Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2100 2173 87 0200346965

Gazteei jarritako isunak ordaintzeko. Euskal presea eta iheslariak aldeko abenduaren 30eko ekimenean parte hartu zuten gazte sakandarrek 6000 euroko isuna jaso dute. Mozal legearen aplikazio horri elkartasunetik erantzun kolektiboa emateko dinamika martxan jarri dute gazteek. Diru ekarpenak egiteko kontu korrontea zabaldu dute. ES67 3008 0014 2133 8075 1119

www.iragarkilaburak.eus

Nabarmendu zure iragarkia

Tamaina berria. Galdetu prezioa.


948 564 275

Nabarmendu zure iragarkia

Tamaina berria. Galdetu prezioa. 948 564 275


EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 13




Giro ezegonkorra izango dugu egun guztian zehar. Nahiz eta goizaldean ostarte batzuk ikusi, arratsaldean euri zaparrada handiak izango ditugu.

Larunbata, 14




Lasaitzera egingo du eguraldiak egunak aurrera joan ahala. Eta temperaturak igotzen joango dira arratsalde partean.

Igandea, 15



Eguzkia izango da gaurko protagonista. Temperaturak nabarmen igoko dira eta giro ederra izango dugu gurean, argia eta epela.

Astelehena, 16



Aste hasierak berriro ere euria ekarriko digu eta gainera, zaparrada etengabeak izango dira, haizeaz lagunduta.

tanatorioak
IRACHE

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

🐦 @Grupolrache

📌 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 13

ALTSASU Atxiloketa baten aurrean zer egin. Askatasun Kolektiborako Abokatuen prestakuntza praktikoa Ospak, Gazte Asanbladak eta Ikasie Abertzaleak antolatuta. 18:30ean, Gure Etxean.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa. 19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak. 20:00etan, plazan.

ALTSASU Udaberriko dantza emanaldia. Altsasuko Musika eta Dantza Eskola. 19:30ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa. 20:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU La forma del agua filmaren emanaldia. 22:00etan, lortia kultur gunean.

LARUNBATA 14

LAKUNTZA Lakuntzatik Amezketara. Mendi irteera hori antolatu du Zabalarke klubak. Plazatik.

ALTSASU Altsasu eta Gebara arteko 80 km-ko joan-etorria egingen dute Barranka Txirindulari Taldeko errepede atalekoak. 09:00etan, San Juan plazatik.

ALTSASU Errepublikaren eguna. Ezker Batuak antolatutako

ekitaldia. 12:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU SGA Eren kontrako eta musika merkatuari buruzko hitzaldia antolatu du Garraxi Irratiak. 21:00etan, gaztetxean.

ALTSASU DYN edizioari buruzko hitzaldia, Garraxi Irratiak antolatuta. 22:00etan, gaztetxean.

ALTSASU Kontzertuak: Pato Pato, FFFFFIST, Hedor, Kinki Revenge eta dj-ak. 23:00etan, gaztetxean.

IGANDEA 15

ALTSASU Bernoa, 42 km-ko joan-etorria egingen du Barranka txirindulari klubeko mendi-bizikleta taldeak. 08:30ean, abiatuko dira euren egoitzatik.

ALTSASU Las tres cerditas musikala eskainiko du L'Horta Teatre konpainiak. 17:00etan, lortia kultur gunean.

LAKUNTZA Oroimena kantuz. Memoriaren aldeko kontzertu akustiko bat baino gehiago. 18:00etan, kultur etxean.

ALTSASU La forma del agua filmaren emanaldia. 19:30ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa. 20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 16

ALTSASU Pentsio publikoen sistemaren aldeko estatuko



ALTSASU Ongi etorri errefuxiatuak erakusketa, Sakana Harrera Haranak antolatuta. Apirilaren 15era arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 17:30etik 21:00etara, lortia kultur gunean.



IRURTZUN Greziara karabana. Mugak zabalduz (2016). Txefo Mendezzen argazkiak maiatzaren 4ra arte Irurtzungo Pikuxar euskal txokoan ikusgai.



ALTSASU Parlamentu baten irudiak erakusketa, Nafarroako Parlamentuak antolatuta. Apirilaren 16tik maiatzaren 6ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 17:30etik 21:00etara, lortia kultur gunean.

borroka jardunaldia. Banakako Pentsioen Europako produktuari ez! 12:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU Altsasukoak aske batzarra, epaiketaren berri emateko. 20:00etan, udaletxe parean.

ASTEARTEA 17

IRURTZUN Lehen sorospenak ikastaroa. 15:00etatik 17:00etara, Atakondoa eskolan.

IRURTZUN Emakumea eta musika hitzaldia.

Kulturartekotasunaren astea. 15:00etan Atakondoa eskolan.

LAKUNTZA Bateria kontzertua. San Saastin Musika Eskolako ikasleak. 17:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Altsasukoak aske batzarra, epaiketaren berri emateko. 20:00etan, udaletxe parean.

ASTEAZKENA 18

ALTSASU Altsasukoak aske batzarra, epaiketaren berri emateko. 20:00etan, udaletxe parean.

ZORION AGURRAK



June Apirilaren 5ean lehen urtea bete zenuen, June. Ehun bider bete eta mila bider zorion izan ditzazun opa dizugu. Etxekoen partez.



OSTEGUNA 19

IRURTZUN Lehen sorospenak ikastaroa. Izena emateko: 948 600 694. 15:00etatik 17:00etara, Atakondoa eskolan.

IRURTZUN Jolasak, merienda eta istorioak. Kulturartekotasunaren astea. 15:00etan Atakondoa eskolan.

ETXARRI ARANATZ Transgenikoak eta glifosfatoa erabilerari buruzko mahai-ingurua: Jose Ramon Olarieta, Lleidako Unibertsitateko irakaslea eta Transgenicos ¿De verdad son necesarios? liburuaren idazlea eta Aritz Ganboa, Belardikoa. 18:30ean, kultur etxean.

ALTSASU Lady Bird filmaren emanaldia. 19:00etan, lortia kultur gunean.

IRURTZUN Camino Oscoz y otras historias del 36 hitzaldia. 19:00etan, liburutegian.

OLATZAGUTIA Me olvidé de mi misma en algún sitio. Baltistan fundazioaren bi emakumeri buruzko dokumental emanaldia. 19:30ean, kultur etxean.

ALTSASU Altsasukoak aske batzarra, epaiketaren berri emateko. 20:00etan, udaletxe parean.



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen ibitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com · www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU · Tel./Fax: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



Gora gure txapeldunak!

PILOTA Merezitako txapeldunak dira Joseba Ezkurdia eta Jose Javier Zabaleta. Partida borobila eginez, 22 eta 9 hartu zituzten menpean euren maila eman ez zuten Danel Elezkano eta Beñat Rezusta. Orain Buruz Burukoari ekingo diote

Igandekoa arratsalde perfektua izan zen sakandarrendako. Binakako final handia zegoen jokoan eta Joseba Ezkurdia eta Jose Javier Zabaleta txapeldun ikusteko gogoia genuen. Arbizuar, arakildar eta irurtzundar asko Bizkaia frontoira joan ziren, sakandarren aldeko kamiseta gorriekin. Gainontzekoek telebistan jarraitu genuen finala. Bizkaiko harmailetan lau finalisten aldeko pankarta ugari zeuden, baina gorria izan zen azkenean nagusitu zen kolorea.

Final orekatua aurreikusten zen, baina ez zen hala suertatu, Danel Elezkanok eta Beñat Rezustak ez zutelako euren maila eman. Aldiz, sakandarrek partida borobila egin zuten eta arerioak konturatzerako, alde handia lortu zuten. Ezkurdiak jokoa ezin hobeto antolatu zuten eta dinamita hutsa izan zen. Zabaletak primeran lagundu zion eta, azkenean, 22 eta 9 gailendu ziren.

Hunkituta zeuden sakandarrak, txapeldun izanagatik: Joseba-arendako bere lehen txapela zen

eta Zabaletarendako bigarrena. Zendutako lehengusua eta osaba izan zituen gogoan arbizuarrak, bereziki, eta bi pertsona Etxarrengoak, izenik eman gabe. "Txapel hau lortzeko lan asko egin behar izan dut eta izugarri disfrutatuko dut" aitortu zuen Ezkurdiak. Zabaleta "oso kontentua" zegoen, bere bigarren txapela "lagun handi batekin" lortu zuelako.

Ondoren Arbizuko bidea hartu zuten biek, elkarrekin ospatu baitzuten festa. Harrera bikaina egin zieten, aureskua, lore eskaintza eta guzti. Afariaren ondoren, festa ordu txikiak arte luzatu zen eta gozatu ederra hartu zuten zaleek.

Oso eskertuta

Oraindik igandean bizitako sentsazioak fresko dituzte. "Egun polita izan zen finalekoa, bikaina. Podium gainean egotea eta zale guztiak txaloka ikustea sentsazio ia sinestezina da, baina nik finaleko momentu asko ditut buruan, guztiak politak" aitortu du Ezkurdiak. "Ongi

etorria, aureskua, oroigarriak... ikusgarria izan zen dena. Gure herritar eta zale guztiei eskerrak ematea besterik ez dugu. Gau oso polita izan zen, gure senitartekoekin, lagunekin... oso gustura ibili ginen, ezin da hitzez adierazi gure esker ona" gaineratu du.

Sakana izena toki guztietara barreiatu zuen bikoak eta sakandarren babesa izugarri sentitu zutelako gaineratu du. Hurrengo egunean esnatu eta telebistan finala jarri zuela ere aitortu digu arbizuarrak, eta txapela oraindik etxean dabilela bueltaka. "Amak toki polit bat prestatuko dio". Ea txapel gehiago batzen diren.

Orain Buruz Burukoa

Asteburuan hasiko da Buruz Buruko Txapelketa. Zabaleta B multzoan ariko da eta Albisu izango du arerio gaur Ataunen (ETB 1). Irabazleak Olaizola izanen du zain. Aldiz, Ezkurdia apirilaren 20an ariko da Altsasun, Jaka eta Lasoren arteko partidako irabazlearen kontra.



Joseba Ezkurdia eta Jose Javier Zabaleta, merezitako txapela ospatzen. . LUIS TEJIDO / EFE



Arbizuarrek Ezkurdiaren aldeko kamiseta gorria egin zuten finalerako. KATRIN GINEA



Ezkurdia eta Zabaleta, final bezperetan, Arbizun. GUAIXE



Txapela irabazi berri, hunkituta zegoen biko sakandarra. ASPE



Arbizun ongi-etorri beroa egin zieten, auresku, lore eskaintza eta guzti. KATRIN GINEA



JOSEBA EZKURDIA
(1991-04-22, ARBIZU)

Pisua: 93 kg
Altuera: 1,91 m
Debuta: 2011-12-28,
Beotibarren (Tolosa)
Palmaresa: 2018ko
Binakako Txapelduna,
Zabaletarekin eta 2012ko
Promozioko Buruz Buruko
txapeldunordea

JOSE JAVIER ZABALETA
(1991-03-08, ETXARREN)

Pisua: 84 kg
Altuera: 1,87 m
Debuta: 2011-01-06,
Astelenan (Eibar)
Palmaresa: 2013ko
Binakako txapelduna,
Irujorekin, eta 2018ko
Binakako Txapelduna,
Ezkurdiarekin



Ospakizuna ordu txikiak arte luzatu zen, Arbizun. KATRIN GINEA



Flora Etxabe, 100 urteko jarraitzaile sutsua. J.J. LARRAZA



Ezkurdiaren mentorea, Lino Arruti, bere pupiloa animatzen. ASPE

GUAIXE.EUS
Informazio, audio eta argazki gehiago
gure webgunean.





Eguraldi kaxkarrari aurpegi ona jarri zioten Hiru Mendizerran aritu zirenak. REBEKA MENDOZA

380 mendizalek osatu zuten martxa, euripean

MENDIA Eguraldiak ez zuen lagundu baina larunbatean 380 mendizalek osatu zuten Altsasuko Mendigoizaleak taldeak antolatutako Hiru Mendizerrak mendi martxa. Altsasu auziko senideei babesa eman zieten eta biharko manifestaziora deitu zuten

Rebeka Mendoza ALTSASU

Larunbatean Altsasuko Mendigoizaleak taldeak antolatutako XI. Hiru Mendizerrak mendi martxaren txanda izan zen. 450 mendizalek izena emana zuten baina horietatik 380k parte hartu zuten, eguraldi kaxkarraren ondorioz.

Altsasuko proba ez lehiakorra da, ez da klasifikaziorik egiten.

Gehienek ibilbide luzea aukuratu zuten, baina askok motza edo tartekoa (Sozarretako puntutik Altsasura buelta ematen duena) egiten amaitu zuten.

Antolakuntzan guztira 50 lagun bildu ziren. Eguraldia kenduta, probaren lasaitasuna nagusitu zuten. Izan ere, ezbehar gutxi egon ziren, bihurdura bat eta basoan galdutako beste bat.

Antolatzailerek Altsasu Auziko senideei babesa eman nahi izan zieten Hiru Mendizerrak martxan, eta mendizaleak larunbateko Iruñeko manifestaziora joatera animatu nahi izan zituzten. Senide batek, Haizea Ramirez de Aldak, lau momotxorroekin batera, mendi martxari hasiera eman zion eta helmugan diru bilketako kutxa bat zegoen.



CBASK

Altsasukoak Aske 3x3 Berara

SASKIBALOIA Altsasuko CBASK saskibaloia Taldeak, Altsasuko Gazte Asanbladak eta Altsasuko Udalak Altsasukoak Aske 3x3 Saskibaloia Txapelketa antolatu zuten martxoaren 31n. "Nahiz eta Aste Santua datarik aiposena ez izan, jende asko oporretara doalako, 10

taldek parte hartu zuten txapelketa, zifra oso polita" dio antolakuntzak. Bost taldez osatutako bi multzotan aritu ondoren, finala Fisura talde sakandarrak eta Libre eta etxean talde beratarak jokatu zuten. Oso lehia estuan, beratarak gailendu ziren, 14 eta 16.



Espainiako Pista Txapelketako Nafarroako selekzioa, sakandarrak artean. RFEC

Gonzalezen eta Etxeberriaren dominak Espainiako Txapelketan

PISTA TXIRRINDULARITZA Txapelketatik bi domina ekarri zituen Bakarne Gonzalezek eta bat Josu Etxeberriak

Nafarroako Pista Selektzioak bi brontzezko domina eta zilarrezko bat lortu zituen apirilaren 1ean Tafallan jokaturako Espainiako Pistako Txapelketan.

Josu Etxeberriak brontzezko domina jantzi zuen puntuazio-proban. Lehia oso borrokatua izan zen, esprintean erabaki zena. Hirugarrena sartu zen iturmendiarrak. Bakarne Gonzalez altsasuarrak lortu zituen beste bi dominak. Scratch modalitatean hirugarrena sailkatu zen eta keirinean, aldiz, bigarrena. Bi probak lehia handiko azken bueltan erabaki ziren.

Martxel Etxeberria eta Joana Irastorza sakandarrak lan polita egin zuten.

Erbiti eta Etxeberria Paris-Roubaixen

Igandean jokatu zen Paris-Roubaix klasikoa, "galtzadarrien lasterketa" edo "infernu". Profesionalen proban (257 km) Movistar Team taldeko Imanol Erbiti arakildarra 30.a sailkatu zen, merituz handiz. Juniorren mailakoan, Josu Etxeberria Espainiako selekzioarekin aritu zen, baina, tamalez, ezin izan zuten proba despeditu.



NAFARROA-ERMITAGAÑA

Nafarroa-Ermitagaña lanera

TXIRRINDULARITZA Ostiralean emakumezkoen Nafarroa-Ermitagaña taldearen aurkezpena egin zuten. 20 txirrindulari ditu taldeak, kadeteak, juniorrak eta eliteak. Tartean daude Leire Maiza Razkin junior etxarriarra eta Maria Beraza Arrieta kadete uharterra. Euskaldun trofeoan, Espainiako Kopa, Kataluniako Kopa eta Frantziako Kopan parte hartuko du taldeak.

Sakanako Herri Kirol Eguna, etzi Lakuntzan

HERRI KIROLAK Sakanako Mankomunitateak antolatuta, Sakanako aizkolariak, soka-tiratzaileak, harri-jasotzaileak, koxkol-biltzaileak eta trontzalariak arituko dira, goizeko 11:30etik aurrera, Lakuntzan

Sakanako Mankomunitateak, Lakuntzako Udalaren, Nafarroako Gobernuaren eta Sakanako herri kirolarien laguntzarekin, Sakanako Herri Kirol Eguna antolatu du igandean Lakuntzan, 11:30ean.

Orain arte herri kirolarien festa dena abenduan antolatzen zen, baina 2018tik aurrera udaberriaren egitea erabaki da, festa frontoietatik kalera ateratzeko, eguraldiak laguntzen badu behintzat. "Proposamen bat kontuan hartuta hartu genuen eguna abendutik udaberriara aldatzeko erabakia. Izan ere, Sakanako Herri Kirol Eguna plazara atera nahi da, pilotalekuan baino ikusgarriagoa delako eta herri kirol mota gehiago egiteko aukera ematen duelako. Horrela, hemendik aurrera apirillean ospatu dugu herri kirolarien topagunea den festa" azaldu digu Sakanako Mankomunitateko kirol teknikari Amaia Gerrika-goitiak.



Negutik udaberriera aldatuko dute herri kirolarien festa.

Igandean, Lakuntzan, aizkolariak, soka-tiratzaileak, harri-jasotzaileak, koxkol-biltzaileak eta trontzalariak arituko dira plazan. Batetik, Sakanako Harri-jasotze eskolan eta Sakanako Aizkora Eskolan trebatzen di-

renak izanen dira, eta, horretaz gain, eskolatik kanpokoak, adin eta belaunaldi ezberdinekoak. Eta baita Andra Mari eta Inigo Aritza ikastoletako herri kirol taldeetako sokatira tiratzaileak eta koxkol-biltzaileak.

PILOTA Olazabal eta Bergera Espainiako txapelkunordeak

Igandean Espainiako Kluben Artek Txapelketako finalak jokatu ziren. Eskuzko Binakako finalean Irurtzun klubeko Olazabalek eta Bergerak Huarte klubeko Yoldi eta Peñas izan zituzten aurkari. Lehia oso estua izan zen. Lehen jokoan 10 eta 9 irabazi zuten Yoldi eta Peñasek, eta bigarren jokoan 9 eta 10 irabazi zuten Olazabalek eta Bergerak. Horrela, berdinketa hausteko hirugarren jokoak erabaki zuen finala eta kasu honetan ere tanto bateko aldearekin erabaki zen: 5 eta 4 gailendu ziren Yoldi eta Peñas. Horrela, tanto baten aldeagatik, Espainiako Kluben Artek txapelkunordeak dira Olazabal eta Bergera.

PILOTA Irurtzongo Pilota Txapelketan bi jardunaldi jokoan

Martxoaren 31n hasi zen XXVI. Irurtzongo Pilota Txapelketa. Bi mailatan jokatzen ari da: 22 urtez azpiko mailan (12 bikote) eta senior mailan (24 bikote). Puntako pilotari afizionatuak lehiatzen ari dira bertan.

Martxoaren 31n jokatutako jardunaldian Garciak eta Aldabek 22 eta 20 irabazi zieten Aznarezki eta Nublari, Astiz eta Gaskuek 22 eta 21 Quinari eta Ugalderi eta Murgiondori eta Berazari 13 eta 22 irabazi zieten Urkizuk eta Labakak. Eta apirilaren 5ean Olanok eta Lizeagak 22 eta 9 hartu zituzten menpean Vidan eta Zuasti eta Armendarizek eta Alduntzinek 22 eta 17 Barbajero eta Telletxea.

Irurtzongo Txapelketa

Asteburu honetan Irurtzunez pilota txapelketako bi jardunaldi hartuko ditu.

Ostiralean, 19:15ean:

- Garcia-Aldabe / Astiz-Gaskue
- Lansalot-Kortabarria / Urkizu-Labaka

Larunbatean, 10:30ean:

- Olaetxea-Lazkoz / Josue-Bidaurreta
- Telletxea-Odriozola / Olaetxea-Goikoetxea
- Oskoz-Arce / Bastarrika-Garmendia



RURAL KUTXA-SEGUROS RGA

Aramendia txapeldun Cuellarren

TXIRRINDULARITZA Rural Kutxa-Seguros RGA taldeko Eneko Aramendia txirrindulariak garaipen garrantzitsua lortu zuen asteburuan Segovian, Cuellarko Txuletako Klasikoa irabazi baitzuen. 182 partaideen artean iturmendierra gailendu zen (8:35:57), helmugara bakarrik iritsi eta gero. 8 segundo atera zizkion Gsport Wokfbikeeko Llopisi.

XXIX SAKANAKO IBILALDIA

2018KO APIRILAREN 28a
IRURTZUN · IRATXO ELKARTEA

IBILBIDE LUZA: IRTEERA: 06:00
54 Km. - 3.388 mko desnibela

IBILBIDE MOTZA: IRTEERA: 07:30
25,5 Km. - 1.440 mko desnibela

IBILALDI TXIKIA: IRTEERA: 09:30
14 km. - 736 mko desnibela

www.zirkuitua.com

Iruten ematea martxoaren 19tik apirilaren 25era arte web orrian eta ibilaldiaren egunean.

www.iratxoelkartea.com · iratxomendi@gmail.com

ANTOLATZALEAK:

LAGUNTZALEAK:

G. de Eulatek Espainiako Triatloi Kopari ekin dio

TRIATLOIA / DUATLOIA Iron Man erdia distantzian lehiatu zen Sakana Triatloi Taldekoa eta elite mailan 23.a sailkatu zen, bera adin tartean goiko postuetan

Gure triatletek eta duatletek asteburu mugitua izan dute. Batetik, Espainiako Triatloi Koparako baliagarria zen V. Nutrisport Half Triathlon Sevilla jokatu zen (1,9 km igerian, 90 km bizikletan eta 21 km korrikan). 800 triatleta aritu ziren, Sakana Triatloi Taldeko Sergio Garcia de Eulate tartean. Altsasuarrak ohi baino denbora hobeto osatu zuen igeriketa tartea, bizikletan nahikoa postu egin zituen aurrera eta korrikaren tartean ere ongi ibili zen. Azkenean, elite mailan 23. postuan sartu zen (4:38:13), bere adin tartean goiko postuetan. Koparako hurrengo proba maiztaren 12an jokatu da, Iruñako Half Triatloia.

Maiza Espainiako Duatloi Kopan Sakana Triatloi Taldeko Juan Luis Maiza etxarriarra Avilesen lehiatu zen, Espainiako Duatloi Koparako baliagarria den proban. Proba Emilio Martinek irabazi



Garcia de Eulate, helmugan. UTZITAKOA

zuen (52:01). Maiza ongi ibili zen baina helmugarako sarbidean okertu egin zen eta atzean zeterrenetako batek aurreratzen zion, baina bere adin tartean, 50-54 urteko tartean, laugarrena sailkatu zen (1:02:27).

Sakana Triatloi Taldea Nafarroako Taldekakoan

Bestalde, Sakana Triatloi Taldeko 15 taldekidek XIX. Eguesibaroko Taldekako Duatloian parte hartu zuten, aldi berean Nafarroako Taldekako Txapelketa izan zena. Irabazlea Erreka Kirolo Elkartearen izenarekin. Sakana Triatloi A taldea (Iñaki Alvaro, Javier Borrega, Fco. Javier Gomez, Juan Carlos Gomez eta Iban Sobredo) 6.a sailkatu zen proban, 4.a Nafarroako Txapelketan. Ihabarko Mikel Astiz Hiruki taldean aritu zen eta 9.a sailkatu zen proban, 8.a Nafarroako Txapelketan. Sakana Triatloi B taldea (Isidro Asurabarrena, Fermin Azkargorta, Esteban Berdud, Jon Iturrioz eta Mikel Lakuntza), aldiz, 29.a sailkatu zen, 16.a Nafarroako Txapelketan, eta azkenik, Sakana Triatloi C taldea (Gorka Chamorro, Iñaki Gallego, Jorge Iradi, Aitor Lizarraga eta Gaizka Martinez de Albeniz) 50.a sailkatu zen.

SOKATIRA Iñigo Aritza eta Andra Mari Nafarroako Laukoan

Asteburuan hasiko da Nafarroako Lauko Sokatira Txapelketa. 6 mailatan jokatu da. Kadeteen mailan bi talde sakandar ariko dira, Iñigo Aritza ikastola eta Andra Mari ikastola. Berriozar, Anar eta Basaburuarekin lehiatuko dira. Liga sistema bidez, lau jardunaldi jokatu dituzte eta lau jardunaldietako puntuak batu ondoren lehen bi sailkatuen finala jokatu dute.

Lehen jardunaldia bihar jokatu da, larunbatean, Txantreako Ezkaba plazan, 11:30ean. Bigarrena apirilaren 21ean, Lesakako pilotalekuan (17:00), hirugarrena Antsoaingo pilotalekuan (17:00) eta laugarrena eta azkena Iruritan (17:00).

AIZKORA Iban Resano Urrezko Banakakoan, Zumaietan

XXI. Urrezko Banakako Aizkolari Txapelketan, larunbatean 4. jardunaldia jokatu da Odieta frontoian, 18:00etan. 6 aizkolari lehiatuko dira: Ibarra Jesus Mari Mujika, Mutrikuko Arat Mugertza III.a, Sariegoko David Naredo, Valsaingo Manuel Fraile, Asteasuko Jokin Alkizale eta Dorraoko Iban Resano. Bi onenek egingo dute aurrera.

ARETO FUTBOLA Osasuna Magnak Segovia du aurkari gaur

Azken bi jardunaldiak bikainak izan dira Osasuna Magnaren dako. Apirilaren 1ean talde berdeak 2 eta 4 irabazi zion Catgas Energia Santa Colomari eta aurreko ostiralean, Iruñean, Levante taldearen kontra gol festa ederra ospatu zuten berdeek. Rafa Usin, Eric Martel (2), Alex Llamas, Dani Saldise eta Araça izan ziren golegileak.

Sailkapen orokorrean Movistar Inter da liderra (67 puntu). Osasuna Magna bosgarrena da (55 puntu), laugarrena den Jaenekin puntutara berdinduta. Gaur 30 punturekin sailkapenean 11.a den Naturpellet Segoviaren kontra ariko da talde irurtzundarra, 21:15ean, Segovian.

SAKANAKO TOPAKETAK

KIMUEN PARTIDUAK

IGANDEAN, ETXARRI ARANATZEN

- 10:00 Tipi-Tapa – Sutegi
- 11:15 Lagun Artea – Urdiain
- 12:30 Etxarri Aranatz – Kaixo

Sakanako Futbol Topaketak

bueltan: kimuen 13. jardunaldia Aste Santuko oporren ondoren, bueltan dira Sakanako Futbol Topaketak. Zehazki, kimuen mailako 13. jardunaldia jokatu da igandean Etxarri Aranatz. Benjaminei dagokienez, igandean Ziordian aritzekoak ziren baina jardunaldia hurrengo astera, apirilaren 22ra atzeratu da.

Sakanako Mankomunitateak antolatzen ditu Sakanako Futbol Topaketak, txikienei futbol txapelketa batean aritzea ahalbideratzeko.



SAKANAKO 4X4

Sakana 4x4, bertan behera

4X4 Asteburuan zen jokatzekoa Sakanako 4x4 Topaketa, lur orotakoan eta todoterrenoan festa. Baina eguraldi txarrarengatik topaketa bertan behera uztea erabaki zuen antolakuntzak. Euri eta haizeteen eraginez karpenteria muntaketa ia ezinezkoa izan zen. Horrela, motorzaleen festa ekainaren 2ra eta 3ra atzeratzea erabaki dute Sakana 4x4 taldekoek.

PREFERENTE MAILA

EMAITZAK

Lagun Artea – Castillo de Tiebas	0-0
Etxarri Aranatz – Beriain	0-1

SAILKAPENA

1. Infanzones	51
12. Lagun Artea	27
13. Etxarri Aranatz	23

PARTIDUAK

LARUNBATEAN

15:45 Infanzones – Etxarri Obanos

IGANDEAN

19:30 Beriain – Lagun Artea Beriain

Lakuntzan 2. zatian Lagun Arteak dominatu zuen baina ez zuen lortu izandako gol aukerak gauzatzea. Eta Etxarri Aranatz, bi taldeak pare pare ibili ziren, baina Beriain aurreratzen eta abantaila mantentzen jakin zuten.

ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK

Universidad de Navarra – Altsasu	0-1
----------------------------------	-----

2. FASEKO SAILKAPENA

1. Pamplona B	24
5. Altsasu	13

IGOERA FASEA. PARTIDUA

IGANDEAN

17:30 Altsasu – Lezkairu Dantzaleku

Universidad de Navarra taldeak huts egin zituen izandako aukera guztiak. Aldiz, Altsasuk ongi aprobetxatu zuen eta gola sartu zuen, 3 puntuak etxera ekarrita.

ELOMENDIKO TXAPELK.

EMAITZAK

Ardoi – Zaldua	2-2
----------------	-----

SAILKAPENA

1. Unziti	57
3. Zaldua	41

PARTIDUAK

LARUNBATEAN

Zehaztu gabe Zaldua – Elomendi

Zalduak hirugarren postuari eusten dio.

EMAKUMEEN ERREG.

EMAITZAK

Altsasu – Baztan	3-0
Osasuna – Altsasu	4-0

SAILKAPENA

1. Berriozar	76
13. Altsasu	21

IGANDEAN

11:45 Altsasu – Universidad de Navarra Dantzaleku

Altsasuko neskek Baztanen kontra garaipena lortu zuten baina ezin izan zuten Osasunaren kontra punturik batzea lortu. Sailkapenean 13.ak dira.



Oroimena kantuz ekitaldiaren entsegua. UTZITAKOA

Historia-memoria ariketa, eta egungoa ere baden hausnarketa

Musika, poesia eta antzerki bidez hori eskainiko du Lakuntzako Memoria Taldeak igandean, 18:00etan,

LAKUNTZA

Militarrek estatu kolpea jo zutela 80 urte betetzen zirela eta 2016an Lakuntzako fusilatu bakarra zen Lazaro Alegria Lazkarai eta gorriak pasa behar izan zituzten herritarrak gogoratzeke ekitaldia egin zuten. Sakanako udalen hitzarmenaren barruan, pasa den urtean lakuntzarrei egokitu zitzaizen Otsaportilloko ekitaldia antolatzea.

Bai batz, bai besteaz, Lakuntzako Memoria Taldea arduratu zen. Otsaportillokoa eta gero, aurtan beste memoria-ariketa bat egin beharko zutela bururatu zitzaizen eta lastailean hasi ziren hura izan zitekeenari forma ematen. Musikarien aurreneko entseguak lastailean izan ziren. Eta testuen prestaketa eguberrietan. Eta hura, eta beste. Horrela sortu du Lakuntzako Memoria Taldeak *Oroimena kantuz. Memoria kontzertu akustiko bat baino gehiago.*

Diziplina arteko ikuskizuna

Talde antolatzaileko kide Martin Larrazak azaldu digunez, igandean, 18:00etan, kultur etxean eskainiko dutena "memoria zabaltzea eta erakustea" helburu duen ikuskizuna da. "Gerran gaizki pasa zuten, fusilatuak izan ziren, jendeak alde egin behar izan zuen... Bai. Baina gaur egun ere hori gertatzen ari da. Orduko hura gaur egun errefuxiatuak bizitzen ari dira. Eta hori ere nabarmendu nahi dugu emanaldiarekin". Azken finean, taldearen helbu-

ria memoria azalaraztea, berreskuratzea eta ez errepikatzeke ekarpena egitea da, "nahiz eta beste tokietan gaur egun ez den horrela gertatzen".

Lakuntzako Memoria Taldekoek buruan zutena 14 abestiz (Euskal Herria, Espainia eta Kuba), 6 antzezpenez eta 3 poesiez (Euskal Herria eta Uruguai) osatutako ikuskizun bihurtu da. Hura kultur etxeko oholtzara ahalik eta herritar gehien eraman zezatela zen taldekideen nahia eta 20 bat lakuntzar bustitzea lortu dute.

Parte-hartzaileak

Eszena-tokia hirutan banatuta egonen da. Erdian irudiak proiektatuko dira. Ezkerrean honako musikariak egonen dira: Ricardo Areta, Ibai Hernaiz, Martin Larraza, Patxi Errazkin, Imanol Goñi, Alvaro Olano, Ernesto Hernaiz, Munia El Marhoum, Aiora Larraza, Nahia Perez eta Ainhoa Vergara. Oholtzaren eskuin aldean, berriz, poesiak errezitatuko dituztenak eta antzezleak egonen dira. Aurreneko langintzan Jasone Etxebeste, Miren Alonso eta Ane Miren Iruretagoiena izanen dira. Antzezleak, berriz, bi dira: Alicia Garcia de Garaio eta Enma Larrera. Izaskun Salinasen testuak jokatuko dituzte.

Guztia behar bezala atera dadin, teknikaz Aitor Garcia arduratuko da. Josu Imazek eta Javier Ardaizek sorkuntzan lagundu dute. Igandeko emanaldia Jone Aretak aurkeztuko du.

Juanjo Olasagarrerendako Xabier Lete IV. poesia saria

Aurkeztutako 31 lanen artean epaimahaiak arbizuarren "Hemen" poesia sorta aukeratu du

ARBIZU

Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Xabier Lete euskarazko lehiaketa irabazi du Juanjo Olasagarrek eta asteartean jaso zuen dagokion saria: Jose Ramon Andaren eskultura, 12.000 euro eta lanaren argitalpena, poesian espezializatutako argitaletxe batekin eginen dena.

Epaileen iritziz, "hemen ez da ezer gertatzen esanez labur genezake esaten den guztiaren gainezkaldiaren ondoren geratzen dena". Olasagarreren lanaren ezaugarriak honakoak lirateke: "poemen egikera aberatsa eta hats luze zein sakonera handiko hausnarketa izatea goraiatu du epai-mahaiak. Ironia baliatzen du egileak, ausart eta anker".

Arbizuarren poema bilduma "anitzta da formen, irudien eta gaien ikuspegitik. Gizon egin baten bizitzaren pusketatik sor-



Juanjo Olasagarre. WWW.GIPUZKOA.EUS

tzen den hausnarketa liriko eta, aldi berean, petrala eskaintzen du" Olasagarreren obra horrek. *Hemen* liburuan islatzen dira; "urbanotasuna, naturarekiko atxikimendu mikatza, norberarekiko arrotasuna, itzuleran beti norabait iristea..."



Anderearen sua. UTZITAKOA

Andereri edo Mariri buruzko dokumentala finantziario bila

Yolanda Mazkarian Zelaiak Anderearen sua Mari jainkosari buruzko dokumentala egin nahi du: *Anderearen sua*. Irudiak grabatuak ditu eta postproduzioa egiteko, Interneteko Verkami plataformaren bidez crowdfunding edo diru bilketa hasi zuen astelehenean. Maiatzaren 18ra arte 4.000 euro bildu nahi ditu. 10, 15, 25, 30 eta 500 euroko diru ekarpenak egin daitezke.



ASTEKOA

JUAN KARLOS LOPEZ-MUGARTZA

Polemika etxe izenen bilketaren arloan

Sakanako etxeen izenak jaso behar dira galdu baino lehen. Hala ere, lanari ekiteko unean bi ikuspegi kontrajarriak daude: alde batetik, filologiari garrantzi osoa ematen diotenak (eta aholkatzeagatik kobratzen dutenak) eta, bestetik, gizar-teari zerbitzu bat eman nahi diotenak (musu truk lan egin ez).

Filologoen antzina dokumentatu den izenari lehenatasuna ematen diote, jabeak zer uste duen kontuan hartu gabe. Besteek, berriz, garrantzi osoa ematen diote jabeen iritzari eta errespetatzen dute beren aukera.

Izena agiri zaharretan ez badago, okerragoa da, filologoen datu historikoen falta larria dagoela baitiote, ikertzaile boluntarioen lana zalantzan jarriz.

Leku izenak finkatu zirenean dokumentazioan agertzen ez ziren izenak onartu ziren (Etxarriko Amarriturrietako erreka, Auntzasoro edo Urdinbei), zer dela eta ezin da era berean jokatu etxe izenekin? Mainerren amaren etxea Arruazuko Padrenea edo Padrerena eta aitarena Lakuntzako Elanekoa edo Elanie dira agiri zahar batean egon edo ez.

Kontuan har ditzagun landa etxe izen hauek: Arakilen, Arruazuko Martxoenea, Egiarretako Zarranz eta Abarra, Errotzeko Oskia, Etxarrengo Juanserena eta Iratzar, Hiriberriko Martinberika eta Irigoien, Irañetako Baltegi eta Araiztar, Satrustegiko Zubiarena eta Urritzolako Txastarena,

Zuhatzuko Loperena. Ergoienan, Dorrauko Axkardigein eta Etxeondo, Lizarragako Txikenekoa eta Mendi eta Unanuko Edronekoa. Burundan, Altsasuko Errotazar, Latxanea eta San Pedro bidekoa, Bakaikuko Olaskomuno eta Angoiko, Iturmendiko Elordi eta Nemesio, Olatziko Imaz eta Urbasa bidekoa eta Urdiaingo Ezti-iturri eta Erburu. Aranaz zaharreko lurretan, Arbizuko Reparaz, Etxarriko Azpikoetxea, Izar-Ondo eta Olatzea, Lakuntzako Ataundarra, Etxaundia eta Etxeberri eta Lizarragabengoako Urmendi.

Pentsa dezagun une batez etxe hauen izenak aldatu beharko bagenitu filologo batek hala aholkatzen duelako: zer nolako bertsoa botako luke Joseba Beltza etxarriarrak Sakanako etxeak gaiari berriro heldu beharko balio?



Olga Gartzandia Ijurko, eskiazailea. UTZITAKOA

"Mundialean berriz parte hartzea izugarri gustatuko litzaidake"

Olga Gartzandia Ijurko etxarriarra, UharTE Ipar Eski Taldeko kidea biatloian hasi da, ipar eskia eta tiroa uztartzen dituen kirola egiten.

Leyre Mateos Galartza
ETXARRI ARANATZ

teburuetan elurretara joaten ginen.

eta hori hartzeko asko praktikatzen behar da.

1 Nola hasi zinen eskian?

3 urterekin hasi nintzen nire aitak eta amak eskiazerako joateko ohitura zeukaten eta as-

2 Zaila da?

Eskiatzea ez da zaila praktikatzen baduzu. Azkenean kirol denak bezala teknika behar da

3 Non eskiatzen duzu? Astebururo?

Astebururo elurretara joaten naiz entrenatzera. Normalean

Candanchun entrenatzen dut. Baina beti karrerak dauden lekura joan nahi izaten dut: adibidez, Belagua, Benasque, Baqueira-Beret...

4 Neguan eskia lotuta bizi zara. Udan beste kirolen bat egiten duzu?

Bai. Uda elur denboraldia prestatzeko garaia izaten da. Kakos (mendian bastoiekin ibiltzea), bizikleta, eta rol-eskia egiten dut. Rol-eskia udako iraupen eskiko modalitatea da. Horrela eskiazaileak udan ere teknika eta erresistentzia landu ahal dugu. Rol-eskiko karrerak ere badaude eta horietan ere parte hartzen dut.

5 Neguan ikasteaz eta eskiatzeaz aparte, aurkitzen duzu denbora beste zerbait egiteko?

Udan karrera gutxiago dauzka. Gurasoekin eta anaiarekin mendira joatea gustatzen zait.

6 Zein txapelketatan hartzen duzu parte?

Iraupen eskian, Espainiako Kopan eta txapelketan parte hartzen dut. Espainiako Kopak gutxi gorabehera 10 karrera dauzka. Martxetan ere parte hartzen dut, adibidez, Somporten edo Belaguan. Eta Nafarroako txapelketan ere bai. Biatloian, Aragoiko, Nafarroako eta Espainiako txapelketatan aritu naiz.

7 Zer nolako sentsazioarekin bueltatu zinen mundialetik?

Abenduan biatloieko mundialean parte hartu dut. Oso esperientzia polita izan da. Asko ikasten duzu eta jende asko ezagutzen duzu. Maila handia dago Espainiatik kanpo eta hori ikasteko aukera

ematen dizu. Lehenengo egunak arraro egin zitzaizkidan, ez nuen ezer ezagutzen baina hurrengo egunak pixkanaka ohitura hartu nuen: entrenatzeko modua, jendea ezagutzen duzu... Benetan oso esperientzia harrigarria da. Heldu den urtean izugarri gustatuko litzaidake berririko parte hartzea.

8 Zenbat probatan hartu duzu parte?

Espainiako kopan aritu naiz. Nafarroako txapelketan eta zenbait martxetan. Biatloian, Austrian mundialean parte hartu dut. Espainiako txapelketan eta Madrilgo txapelketan baita ere.

9 2018an biatloian hasi zara. Nola ezagutu zenuen?

Orain dela 4 urte biatloia neguko Olinpiadetan ikusi nuen. Asko gustatu zitzaidan eta aita eta amari biatloia egitea eskatu nien. Biatloia praktikatzeko 16 urte izan behar dituzu. Txikiendako, laserreko karrerak egiten dira. Helduek gutxi gorabehera 4 kiloko karabina erabiltzen dute. 22 kalibreko balak erabiltzen dira.

10 Nola hasi zinen?

Txikia nintzanean laserreko karreretan parte hartu nuen eta 16 urterekin entrenatzen hasi nintzen Aintzoaingo tirozelaian.

11 Zaila da bi gauzak kontuan hartzea eta kontzentratzea?

Biatloian asko kontzentratzea eta lasai egotea behar da lasterketa ondo egiteko. Hori kontuan hartuta erraza da biak eramatea.